

EUSKAL HAZIENDAK FILIPINETAKO AZUKRE-INDUSTRIAREN MODERNIZAZIOAN: LEKU FISIKOTIK ENPRESA-ESPAZIORA

AITOR ANDUAGA EGAÑA ^{1, 2}

¹ Medikuntza eta Zientzia Historiaren Euskal Museoa,
Euskal Herriko Unibertsitatea, EHU-UPV,
Liburutegi eraikuntza, 3. solairua, 48940, Leioa, Bizkaia

² IKERBASQUE. Zientziarako Euskal Fundazioa, Bilbo
a.anduaga@ikerbasque.org

Azukre haziendak XIX. eta XX. mendeko Filipinetako ekonomia garapenaren kokapen nagusiak bihurtu ziren. Euskal haziendak, bereziki, Filipinetako azukre-industriaren modernizazioa aztertzeko kokaleku aproposa dira, hauen presentzia handiak hango eskualde produktiboagoan (Negros uhartean) azterketa konparatiboa ahalbidetzen duelako. Euskal emigranteek prozesu honetan hainbat modutan lagundu zuten: atzerriko teknologiak ezarri, azukre fabrika zentralak sortuz eta azukre kanabera barietate berriak haziz. Artikuluak hiru berrikuntza hauek hartzen ditu eboluzio indize gisa eta hauen hedapena Filipinetan zehar aztertzen du. Euskal (jatorriko) *hacenderoek*, azukre ekoizteko aurreko sistemak aldatuz, leku fisikoa zena (hazienda) enpresa-espazioa (azukre zentrala) bihurtu eta ondorioz eskualdearen giza geografia eraldatu zuten.

Giltza hitzak: Filipinetako uharteak, euskal emigrazioa, azukre, haziendak, berrikuntza, merkataritza, eraldaketak, ekoizpena.

HACIENDAS VASCAS EN LA MODERNIZACIÓN DE LA INDUSTRIA AZUCARERA EN FILIPINAS: DE LUGAR FÍSICO A ESPACIO EMPRESARIAL”

Resumen

Las haciendas azucareras se convirtieron en los centros principales del desarrollo económico en Filipinas en los siglos XIX y XX. En particular, las haciendas vascas son un emplazamiento ideal para examinar la modernización de la industria azucarera filipina, habida cuenta que su gran presencia en la región más productiva del país (la isla de Negros) facilita los estudios comparativos. Los emigrantes vascos contribuyeron a este proceso de diversas maneras: introduciendo tecnologías foráneas, creando centrales azucareras y criando nuevas variedades de caña de azúcar. El presente artículo toma estas tres innovaciones como un índice evolutivo del sector y examina su expansión en Filipinas. Reemplazando el sistema tradicional de producción, los hacenderos vascos (y de origen vasco) convirtieron un lugar físico (hacienda) en un espacio empresarial (central azucarera), transformado así la geografía humana de la región.

Palabras clave: Filipinas, emigración vasca, azúcar, haciendas, innovación, comercio, transformaciones, producción.

BASQUE HACIENDAS IN THE MODERNIZATION OF THE PHILIPPINES’ SUGAR INDUSTRY: FROM PHYSICAL PLACE TO ENTERPRISE SPACE

Abstract

Sugar haciendas became the main hubs of economic development in the Philippines in the nineteenth and twentieth centuries. In particular, the Basque haciendas are an ideal location in which to examine the modernization of sugar production, since their great presence in the archipelago’s most productive region (Negros island) makes comparative studies possible. Basque emigrants contributed to this process in various ways: introducing foreign technology, establishing sugar centrals (factories), and breeding new varieties of sugarcane. The present article takes these three innovations as an evolutionary index of sugar sector and examines their expansion in the Philippines. By supplanting the traditional system of sugar production, the Basque *hacenderos* (and of Basque origin) converted a physical place (hacienda) into an enterprise space (sugar central), thereby changing the human geography of the region.

Keywords: Philippines, Basque emigration, sugar, haciendas, innovation, trade, transformations, production

Filipinetako bideetan barrena abiatua den edonork maiz ikusiko edo entzungo du, *hic et ubique*, tarteka-marteka, euskal hiri- eta kale-izenak, eta gezurra lioke berau ere harrিতuta lego keela aitortuko ez balu. Izan ere, sartuak baitaude euskal izenak hango hirietan (Legazpi, Urdaneta, Anda, Pamplona..., aipatzerik besterik ez dago) eta kaleetan (Ayala, Araneta, Elizondo, Mendiola, Echagüe, etab.), hango gehiengo zabal batek hitz hauen euskal jatorria ez dakien arren. Badira ere, gainerakoak aski ez balira, euskal izenak merkataritzan edota enpresagintza ahaleginetan Filipinetan aritu ziren eta direnen artean: antzinako Filipinetako Errege Konpainiatik hasi eta Ynchausti, Ayala, Aboitiz, Araneta, Elizalde,...., korporazio garaikidekoraino, zerrenda luzea litzateke.¹

Izena duen edozerk izana ere ba omen du; horrek ez du, halere, izan hori gehiegi ikertu denik esan nahi. *Ad usum populi* agerpen guztiek izaten dute jaiotzatiko azalpena, baina hemen ere ezjakintasuna da erregela, salbuespena baino gehiago. William Douglas antropologo amerikarrak zioen bezala, “Artxipelagoan euskal presentziari buruzko ezagutza zatikakoa izan da eta pertsonai gutxi batzuen itzal handietan zentratu da, batez ere. Erabat ironikoa da hau, beste inon ez baita izan euskal immigrazioaren eragina hain handia eta hain iraunkorra”.²

Euskal eraginaren zer-nolakoak eremu agian esanguratsuenean—azukre industrian—azaldu nahi izanez gero, betikoetara jotzeko arrisku handia dago. Produktu koloniala dugu lehenik (abaka, tabako eta kafea bezala), esportazio eta atzerriko merkaturako alegia, eta immigranteentzat interesgune bihurtua: halatsu izan zen lehen euskal emigrante uholdea Artxipelagora iritsi zen denbora haietan ere. Azukre merkataritza erakargarria zen oso euskal establimenduentzako. Bestalde, 1565tik Filipinak espainiar kolonia izanak asko lagundu zuen ahalegin horretan, ordurako bai baitzen familia eta bezero sare baten ehundura, zabala bezain trinkoa, erlijioso, militar eta funtzionario kolonialen bidez, mendeetan zeharko okupazioaren fruitua. Espainiako erregimenaren pean, Manila inguruan, Pampanga eta Negros eta Panay uharterko lautada zabaletan azukre-laborantza bultzatu zen industria-mailan.³

Baina, nahiz eta agian hain ezagun izan ez, bada XIX. mendeko bigarren erdian Filipinetako azukre-industrian euskal partaidetza indartu zuen beste faktorerik ere, zuzenki loturik egon gabe, gutxienez mesedegarritzat jotzeko modukoa. Askoren ustez, 1865an Panamako

1 Pazifikoko euskal presentziari buruzko literatura urria izan arren, aipagarriak dira, beste batzuen artean: Uriarte (1962), Díaz-Trechuelo (1965), Martínez Salazar (1988), De Borja (2005), Unsain (2009), Álvarez Gila (2010). Ikusi ere: Joaquín (1980) eta Anduaga (2019).

2 Douglas—De Borja (2005), hitzaurrean aipatuta.

3 Filipinetako azukre industriaren historiari buruz, irakurri beharrekoak dira: Walker (1910), Quirino (1974), López-Gonzaga (1989), Aguilar (1998), Larkin (1993) eta Billig (2003). Testuinguru ekonomiko zabalagoari buruzko lanen artean, ikusi, adibidez: Legarda (1999), Bosma, Giusti-Cordero eta Knight (2007) eta Aguilar (1994).

kanalaren irekiera inflexio-puntua izan zen, nabigazio komertziala asko erraztu zuen eta. Bestalde, gerra karlistak (bereziki, bigarrena) ere euskal migrazio fluxuen jatorria izan ziren. (Euskal) parte-hartze honek ez luke inor harritu behar, ordea, mundu gainontzeko bazterretarako fluxu migratzaileen lege eta joera berberei erantzuten zien ezker⁴. Hemen bai, azpimarratzekoa da, alabaina, euskal (jatorriko) parte-hartzeak ‘azukre haziendaren’ bilakaera modu bat islatu zuela Filipinetako industrian. Edo, hobeto esanda, azukre hazienda leku fisiko huts izatetik enpresa-espazio izatera nola igaron zen argi eta garbi erakusten du, aldaketa kontzeptual hau historiografia ekonomiko eta teknologikoan oharkabean joan bada ere.

Erakutsiko den moduan, hau atzerriko teknologia inportazioan adierazi zen batik bat, bereziki lehenengo fase batean, XIX. mendetik 1920ko hamarkada arte, harreman, balio eta ekoizpen leku gisako hazienda kontzeptua nagusitu zen garaian. Baina, ordutik aurrera, azukre fabrika modernoek sorreran (*zentral* izenez ezagutzen zirenak) eta azukre-kanabera barietate berrien ikerketa eta laborantzan ere adierazi zen.

Artikulu honek zazpi atal ditu. Lehenengoan, XIX. mendearen zehar azukre industrian gertatutako berrikuntza teknologiarren erreseina egiten du, Ekialde Hurbilean oro har eta Filipinetan bereziki. Bigarrean, mende horretako Filipinetako azukre hazienden ezaugarriak deskribatuko dira, produkzio toki bat ez ezik, harremanak, balioak eta baliabideak barnebiltzen zituen leku fisikoa ere bazela erakutsiz. Hirugarren atalean, azukre industrian gertatutako euskal ekarpenaren beste dimentsio batzuk azalduko dira, zenbait militarren lekukotasunagatik hasita eta merkatari eta mailegu-emaielen rola arte. Laugarrenean, azukre industriaren boterea nolakoa zen adibide politiko baten bidez azalduko da: Negroseko Estatu Federala eta euskal (jatorriko) *hacendero*ek izandako eragina eraketa horretan. Bosgarrenean, “central azucarera” (edota “sugar central”) izenez ezagutuko ziren fabriken sorrera eta hedapena aztertuko dira, euskal (jatorriko) *hacendero* eta ekintzaileek jokaturako papera nabarmenduz. Seigarren atalean, leku fisiko huts izatetik enpresa-espazio bihurtzeko eraldaketa hartan euskal jatorriko azukre-teknologoen egindako ekarpena laburtuko da, azukre-kanabera barietate berrien arloan emandakoa esate baterako. Artikuluaren amaieran, hainbat zuri-bide eta gogoeta adieraziko dira.

Berrikuntza teknologikoak XIX. mendeko azukre industrian

Sektore ekonomiko gutxi izango ziren azukre industria baino iraultzaileagoak XIX. mendean. Asiako hego-ekialdeko eta Karibeko eskualde zabaletan, nekazaritza-sistemetan, elite sozioekonomikoetan eta azukrea ekoizteko teknika tradizionaletan eraldaketa bat ekarri zuen. Filipinetan, ordea, berrikuntza horiek erritmo motelagoan gertatu ziren eta lantegi gutxi batzuetara mugatu ziren. Java eta Taiwanen ez bezala, non teknologia aurreratuak

⁴ Jon Bilbaok (1979) egindako ikerketen arabera, Filipinetako Artxibo Nazionalak paperetan oinarrituz, Filipinetan 1500 euskaldun inguru bizi izan ziren 1830 eta 1910 artean. De Borjak (2005, 87 or.) dio XIX mendean 2000 eta 2500 euskal herritar inguru bizi izan zirela Artxipelagoan.

produkzio prozesua areagotu zuen, Filipinetan produkzioaren hazkundea kanabera lantzeko gunea zabalduz eta errota txikien kopurua handituz lortu zen. Halaz ere, berrikuntza teknologikoen sarrerak—motela, baina mailaz-mailakoa—sekulako ondorioak izan zituen azukre ekoizpenaren arlo guztietan, laborantza eta garraiotik prozesaketara. Azukre kalitatean ere eragina izan zuen, azukre zuriak jatorrizko buztina (edo *muscovado*) azukrea ordezkatzeko ikusi zuena.

Azukrea lantzean daukagun atzerapenaren froga zuzena sistema tradizionala edo txinatarraren izeneko sistema da, hau baita XIX. mende bukaera arte Filipinetan erabili zen teknologia.⁵ Sistema honen arabera, aurrena, karabaoek mugiarazitako harrizko arrabolen arteko presioaren eraginez, kanaberatik azukrea ateratzen zen, eta ondoren, zukua irakiten eta gutxitzen zen, lurrunketaren bidez. Gehi diezaiozun honi, zukua presio zuzenaren bidez ateratzen zela kanaberatik, dakigun heinean, egurrezko arrabolak edota harrizko zilindro bertikalen presiopean, halako teknika XX. mende arte iristen delarik.⁶ Kontuan hartu behar dugu ere arrabola horizontaleko burdin eiharak ez zirela garatu XIX. mende hasiera arte, eta, mende erdialdean, ehoketa anizkuna asmatu zela. Kanaberatik azukre zuku gehiago ateratzeko asmoarekin asmatu zen dudarik gabe, ezin ukatzeko arrazoa, baina edonola ere prentsa tradizionalekin azukre zukuaren ehuneko 50-60 arte ateratzen zen soilik—XX. mendeko fabrika modernoek ehuneko 95tik oso urruti, beraz.⁷

Landareek ez ezik, indarrek ere tokian-tokiko jatorria izaten dute, eta hortik datorkio filipinarren artean mendeetan hartu zuen forma: aberezkua edo idi eta karabaoen jatorrizkoa, alegia. Animaliez gainera, besterik ere izan zen, baina badirudi, han eta hemen, ur energia eskuragarri zegoen tokietan soilik izan zela, nahiz eta hainbat lekutan sistema mistoa ere erabiltzen zen. Toki horietan, uraren gurrpilak mugiarazten zituen azukre-errotak. Hurrengo berrikuntza lurrun energia izan zen; hala ere, denbora luze igaro zen azukrea ekoizteko guneean lurrun-makinak sartu baino lehen. Argibide bezala, 1880ko hamarkadan Asiako hego-ekialdeko herrialdeetan azukrea ekoizteko sistema nagusiak aipa genitzake: Javan 190 ongi hornituriko lantegiak zeunden bitartean, Filipinetan 6.194 oinarrizko errota zenbatzen ziren, eta horietatik, gainera, 5.000 baino gehiago abereen indarrez baliatutakoak.⁸

Zukuaren lurrunketak eta iragazketak bazituzten non eta noiznahi teknika jakinak eta propioak, zaharragoak nahiz berriagoak: aski da orduko “bateria” izeneko eta antzekoak oroitzea, non bata bestearen azpian ontzi ireki lerro bat jartzen zen, muturrean labe bat zuelarik, gainontzeko ontzietan bero zuzena helaraziz. Berrikuntza zuzeneko sistema hau XIX. mendean ohikoa zen oraindik. 1820ko hamarkadatik datorkie, adibidez, lurrun-energia erabiltzea lurrunketa prozesurako. Sistema hauek, bai era sinplean bai “efektu anitzeko”

5 Deerr (1949), 2. lib., 536 or.; Larkin (1972), 67-69 or.

6 Horren deskribapen garaikidea da Nelsom eta Walker (1912).

7 Kolb (1940), 262-263 or.

8 Wolters (1992), 411 or.

lurrunketa eran (1830eko hamarkadatik aurrera garatu zena) erabiltzen ziren eta, funtsean, helburu bera zuten: azukre kalitatearen hobekuntza.⁹

Kolonietan, Filipinetan esate baterako, berrikuntza hauek pixkanaka sartu ziren. Horren lekuko da, adibidez, John Foreman bidaiariaren testigantza, XIX. mende bukaerako azukre prozesaketa sistema honela deskribatzen zuena: “Iparraldeko Filipinetan azukregogia (gaztelaniaz *azúcar de pilón*) egiten da. *Massecuitea*, ontzi irekitik ateratakoan, lurrezko ontzi koniko batera iraultzen da, 150 libra inguruko pisua duena. Masa ezarrita dagoenean, ontzia lapiko baten gainean jartzen da (tagaloz, *oya*), melaza xukatzen den lekura. Lapikoaren gainean mantentzen bada, sei hilabetetan jatorrizko pisuaren ehuneko 20 bihurtuko da, baina normalean denboraldi horretan baino lehenago saltzen da, prezioak onuragarriak badira”.¹⁰

Ezagunak dira, bestalde, industria tradizional honen azukre kalitate ezberdinak. Hor ere, haatik, teknikak gidatu ditu dauden (eta orduan zeunden) kalitate sailkapen motak. Oro har, buztin-sistemak *massacuite* edo masa egosia ematen zuen, hau da, lurrunketaren bidez jatorrizko likorearekin nahastutako azukre-kristal masa trinkoa. Masa honetatik hiru azukre mota bereiz zitezkeen: goiko zatian, azukre zuria eratzen zen; behealdean, *muscovado* izeneko azukrea—“menos” (gutxiago) eta “acabado” (bukatua) portugeseko hitzetatik eratorria—¹¹; eta azkena, panela edo gradu baxuko azukrea, melaza kristaletatik bereizi gabeko azukre gordina. Edonola sailkatuta ere, hemen aditzera eman nahi dena besterik da: mota bakoitzak bazuela berezko merkatua, jatorriaz batera, eta merkatu horrek merezi duela azterketa berezia. Azukre zuria Europako merkatura abiatzen zen, zuzenean eta inongo prozesaketarik gabe. *Muscovadoa*, ordea, tokiko merkatura bideratzen zen, edota Europara, hango iraztegietan azukre zuri bihurtzen zelarik. Azukre gordina, azkenik, Europa eta Estatu Batuetako findegietara bidaltzen zen.¹²

Are nabarmenago ageri zen merkatuaren garrantzia buztin sistema ordezkatu zuen teknologiararen ondoren: hots, zentrifugazio sistema 1830 eta 1840ko hamarkadetan garatu ondoren. Buztin sisteman, adibidez, azukreak berezko zuen almibarra neurri batean soilik ken zitekeen, drainatzez. Aitzitik, zentrifugazio sistemarekin azukre kristal eta melazaren arteko bereizketa azkarrago eta zorrotzago egin zitekeen. Melazak bai baitzituen hazi eta askazi ugari, masa egosi trinkoan nahastuta. Halaber, zentrifugazio sistema biraketa bizkorreko saski bat zen, alanbre fineko sare galbaheaz egina. Hala, indar zentrifugoaren eraginez, masa egosia galbahean kontra astintzen zen, kristalak utsiz, almibarra pasatzen uzten zuen bitartean. Etorki ezberdin zirelako ziren elkarren bananduko.

XIX. mende bukaerako azukre fabrikek, mendebaldeko teknologia berriei amore emanda, ondorengo makina batzuk ala guztiak bil zitzaizketen: arrabol ugariko azukre prentsak ziren,

9 Derr (1949), 1 lib., 179 or.

10 Foreman (1910), 273 or.—Wolters (1992), 415 or. aipatuta.

11 Deerr (1949), 2 lib., 109 or.; Larkin (1972), 79 or.

12 Aguilar (1998), 121-123 or.

lurrun-motor batek bultzatutakoak; hauek, presio handiko lurrun galdarekin zenbiltzaten; azukrea irakiteko, burdinezko zartagin edo ontzi handi eta zabalak erabiltzen ziren; lurrunketarako, berriz, eduki-ontzi zabal irekiak, edo, hori ezean, hiru-efektuko lurrungailua; zentrifugagailua;

Lehen euskal hacenderoak: hazienda leku fisiko gisa

Euskal emigranteen kemen ekintzailea Filipinetako azukre industriaren hastapenetik XIX. mendearen erdialdean nabarmendu zen. Euskaldunek haziendak sortu zituzten Negros uhartean eta Manila hegoaldea bezalako beste leku batzuetan. Azukre merkataritzan aritu ziren, baita nekazariei eta landatzaileei dirua maileguan uzten ere. Horretaz gain, hainbat lan ere idatzi zuten, agintariei eskatuz azukre industrian erreformak bakarrik ez, teknologia berriak ere ezar zitzaten. Horietako asko *hacenderoak* ziren. Atal honetan ikusiko den bezala, hauentzat hazienda produkzio toki soil bat baino gehiago zen: teknologia, baliabideak, balioak eta, are, esperientzia intimoak uztartzen ziren leku fisikoa.

Harrigarria izan daiteke zein goiz eta gogotsu iritsi ziren lehen ekimenak, jaio berri zegoen industria batean, euskal emigranteak iritsi berri ziren Filipinetako aldeetan. Izan ere, zenbait oztopo eta zailtasun aurkitu arren, zerbait betiko irabazi izanaren narratiba goragarriak eta lorpen aitzindariak nagusitu ziren euskaldun hauen artean eta beraien senitarte eta ondorengoen artean. Honen lekuko da Domingo Roxas *hacendero*-ren inguruan aritu ziren euskaldunak La Laguna izeneko eskualdean, Manila hegoaldean. Jatorri mexikarreko industrialari honek azukre industriari hasiera eman zion 1830eko hamarkada erdialdean, burdin errota hidrauliko horizontal bat instalatu zuenean Calatagan izeneko haziendan, Batangasen; horretan, ingeniari frantses baten jakintza eta laguntza jaso zituen, Yves L. Gastonena, azukrean aditua eta Maurizio uhartetik etorria, lurrun-makinazko errota eraiki ziona.¹³

Ez dirudi gauzak Roxasen inguruko kideen artean oso diferenteak izan zirenik. Hauen artean Iñigo González de Azaolaren (1779-1849) kasua azpimarratzekoa da. Manilako galeoi komertzioan zaildutako merkataria hau, tokiko hainbat gobernutan aritu izana zen 1830ko hamarkadan Roxas eta beste *hacendero* batzuekin harremanetan jarri zenerako.¹⁴ Azaola berak eta Roxasek jabegoan zuten La Lagunako Calauan izeneko haziendan, Londresen erositako *trapiche*-a edo burdin errota horizontala instalatu zuten 1834an, 15 zaldi indarreko gupil hidraulikoz mugitua.¹⁵ Eta aurrendariak izan ziren Bulacan eta Pampangako nekazaritzan azukrea prozesatzeko *ekonomika* delako labeak jartzen eta ohiko egurraren

¹³ Larkin (1972), 40 or.; Wolters (1992), 418 or.

¹⁴ Bere anaia Gregorio, politikari ospetsua eta Bizkaiko Diputazioko kolaboratzailea izan zen. Mineralogian aditua, Madrilgo gobernuak European altzairugintzako teknika modernoak ikertzea agindu zion. Geroago, Santanderko La Cavada Errege Kanoi Fabrikako zuzendaria izan zen.

¹⁵ Buzeta (1850), 189 or.

ordez kanabera bera erregai modura erabiltzen. Calauango hazienden aitzinamenduan toki sinboliko nabarmena irabazi zuen Azaolaren ekinak.¹⁶

Roxasen inguruko azukregintzan daukagun euskal ekarpenen beste froga zuzen bat Antonio Ayala Ortiz de Urbina (1805-1876) da, bera baita Filipinetako XIX. mende ez industrializatuan sortutako lehen distilategiaren fundatzailea.¹⁷ Gaur egun, Manilan hain ospetsua den—Makatiren itzalagatik besterik ez bada ere—Ayala sagaren patriarka, leinu argiko semea zen Filipinetara heldu zenean, segur aski han ahaide batzuk zituelako, tartean bere osaba Jose Maria Segui, orduan Manilako artzapezpikua zena. 1834an, Domingo Roxasekin batera, Casa Roxas fundatu zuen. Berez azukregintzaz aritu ez bazen ere (bai, ordea, azukre, kotoi, kafe eta indigoaren merkataritzan), ezin esan azukregintzak eta likore industriak elkarri mesede txikia egin ez ziotenik. Likore ekoizpena Filipinetako industria zaharrenean abiatu zen, Manila Quiapo auzoko faktorian alegia, azukre deribatuen ustiapenaren orpotik eta azukre landatzaile eta inbertsoreen uholdea eraginez.¹⁸ Ordura arteko Artxipelagoa ez zen, Manila, Cavite eta Iloiloko portuak behinik behin, industriari itxia. Baina, hala guztiz, orduko da azukregintzaren lehen jauzi kualitatiboa: Mendebaldean edota bertan kontsumitzeko azukrea ez ezik, distilategietan rona ekoizteko azukre melaza produktu preziatu bihurtu zen.

1840ko hamarkadan bihozkada baizik ez zena, nahiko ausarta eta arriskuz betea, argi dago hurrengo hamarkadetan, gero eta hedatuago, orduan eta traza hobekoa zela. Asiako itsas merkataritzan aritzen zirenak, Filipinetako Errege Konpainiako merkataria, adibidez, edota nekazaritza zabalkundean interesatuek, Azaola bezalakoek, susmatzen zutena, argi eta garbi ikusi zuten, urte batzuk geroago, Filipinetako lehenengotariko distilategien euskal fundatzaileek: ronaren osagai nagusia izanik, etorkizun handia izango zutela azukreak eta honen laborantzak eta ekoizpenak.

Interes horretatik dator, hein batez, Matía, Menchacatorre y Cía. sozietate komertzialak sortutako distilategia eta azukre faktoria Bulacaneke Hagonoyn 1853an. Hiru kidez osaturiko sozietate honek—Claudio Menchacatorre (1822-1882) bizkaitarra, José Matía Calvo (1806-1871) arabarra eta Fernando Aguirre Gaztelu (1811-1871) gipuzkoarra—Manila eta Cadizen arteko merkataritza transozeanikoan espezializatua, ederki batu zituen azukrea eta itsasoa: rona likore preziatua zen, itsasgizonentzat zein itsas garraiorako, kontsumo eta kontserbazio arrazoiengatik, batez ere, eta, ez kasualitatez, azukrea zen bere oinarritzko osagaia.

Eta hortik dator, halaber, beste hein batean, Valentin Teus Irisarri gazteak—besteak beste, galeoi ostean opioarekin komertzioan aritu zen Yrisarri y Cía. konpainia euskal-britainiarreko senitartekoak—Hagonoyko distilategia erosi izana 1856an, 24 urteko besterik ez zela. Horregatik, hain zuzen ere, enplegatu gisa, sartu zenean bi urte lehenago sortutako ontziak eta saltokiak hornitzen zituen enpresan, Ynchausti y Cía.-n (YCO), berarekin eraman zuen bere jabetzapean zegoen distilategia. YCO-k Binondoko Industria Kaian, Manila ondoan,

16 Anduaga (2019).

17 Anduaga (2019).

18 Lachica (1984), 35-39 or. eta 44-48 or.; Nolasco (1969), 158-160 or.

zuen egoitza. Biltegi honetan dozenaren bat euskal aberkidek egiten zuen lan, tartean bere lehengusu Joaquín Marcelino Elizalde (YCO-ko gutxieneko bazkidea eta managerra) eta osaba Juan Bautista Irisarrik; enpresaren buru eta abiaburu Jose Joaquín de Ynchausti (1815-1889) zen, dinastia luze bezain ospetsuaren aitalehena. Hortik gutxira, 1862an, YCO-k destilategiaren artezteko lantegia eraiki zuen, Manilako San Miguel distrituan—1934tik aurrera, mundu osoan ezaguna bihurtuko zen Tanduy destilategiaren aurrendaria. YCO-n ezin berez zitezkeen, Filipinetan egiten zen bezala, itsasontzi- eta nekazaritza-interesak. Honek, orduan Jose Joaquín de Ynchaustik igarri zioenez, bazuen, azukregintzari zegozkiola, etorkizun handia, bai produkzioan (YCO oraindik hazienden jabe ez izan arren), bai enpresa baloreetan (euskal familia enpresa baitzen). Irudi berria, ezinbestez, forma horretan hartu beharko lukete, tradizioarena gal ez zezaten.¹⁹

Azukregintzaren berrikuntza ez zen etzidamurako utzi zitekeen eginbidea. Azukre kanabera plantazioen hedapena bizi zelako, aurrenik, eta azukrearen industria deribatuak ugaltzen ari zirelako, bestetik. Horrela pentsatu zuten, behintzat, William MacGregor Smith industrialari eskoziarrak eta bere ahalduna Filipinetan, Adriano Gorostiza Belletyk (1828- ?). Honen ama, Florentina Bellety, Yrisarri y Cía.-ren korrespontsala izandakoa zen, opioaren merkataritzan urte askotan aritu zena, besteak beste Asian hain sonatua zen Jardine, Matheson & Co. enpresarekin.²⁰ Smith, bestalde, Smith, Bell & Co.-ko kidea zen, eta, bere asmoen artean, Luzonen azukre findegi bat eraikitzea zen, Filipinetako mota honetako lehena izatekoa zena.²¹ Horretako, baina, Gorostizaren bidez, asmakuntza egoki bezain burutsu baten patentea eskatu zuen administrazio kolonialean: “azukrea eta beste sakarina produktu batzuen tratamendu eta garbiketa hobetzeko asmakuntza bat”.²² Smithek Luzon Sugar findegia sortu zuen 1880an. Eta hori gertatu zen, Filipinetako administrazioak, ofizialki behinik behin, Gorostizak aurkeztutako patente eskaerari bost urterako baimena eman ondoan.²³

XIX. mende erdialdean Luzon irlan, bereziki La Laguna, Cavite eta Batangasen eskualdeetan zegoen industria Negros uhartera hedatu zen, Luzonen nagusitasuna hartu arte. Negrosen goraka zetozen euskal haziendak. Ynchausti konpainiak, adibidez, hazienda zabalen jabea zen Negros, Bicol eta Panay uharteetan, eta, gero aztertuko den bezala, inportatutako lokomotoraz baliatuz, trenbide sare bat ehundu zuen Negrosen zehar, La Carlota herritik merkataritza-trafikorako leiho zen Pontevedrako portura. Mendebaldeko Negrosen, esaterako, orduan eraiki zen Beriain izeneko hazienda eta azukrea fintzeko

19 Nolasco (1970), 56-57 or.; Anduaga (2019); Borja (2005), 131-137 or.; Ocampo (2006);

20 Permanyer (2013), 288-291, 313, 315, 541 or.

21 Smith azukregintzan esperientzia luzeko gizona zen: behin, Shangain lehendabizi eta gero Hong Kongen egoitza zuen Smith, Wahee & Co. azukre konpainia sortu zuen; gero, porrot egin ostean, Jardine, Matheson & Co.-ri saldu zion findegia 1864an, hortik urte batzuetara (1874an) China Sugar Refinery Co. bihurtu zen enpresa ezaguna, hain zuzen ere.

22 Philipines National Archives, Privilegios de Invención, SDS 12446, 1 esp.

23 Smith, Bell & Co. Under Four Flags. The Story of Smith, Bell & Company in the Philippines. Bristol, 1972.

faktoria Kabankalanan;²⁴ ekimen horren bultzatzailea Tirso Lizarraga Inza izan zen, 1866. an, Nafarroako Beraindik emigratu zuena, segur aski bere afiliazio karlista zela kausa, eta gero lloiloko alkatezara heldu zena.²⁵ Honelako zerbait ere gertatu zen, bere jatorria eta kokapena zehaztu gabe dagoen arren, Evaristo Zuluetaekin, garai hartan dirutza lortu zuena lloilon, azukre lurjabe eta landatzaile ofizioetan aritu ondoren.²⁶ Ekimen guzti hauen atzean, hein handi batean, azukrearen kanpoko eskaeraren igoera zegoen, batik batik britainiarrena, Kubako afrikarren esklabotzaren abolizioaren albo-eragin bat Filipinetako azukre ekoizpenaren esportazioa bultzatzea izan baitzen.

Negrosen ere, azukregintza ez zen inertzia eta teknika tradizionaletatik berehalako batean askatu; bere horretan jarraitu zuten karabaoek mugiarazitako harizko arrabolek, egurlabeek, almibarrak kentzeko buztin-sistemak eta abarrek, harik eta, bistan denez, euren balioa kolokan jartzen hasi ziren arte. Argibide bezala, 1840tik aurrera Negrosetako Bacolod inguruan Lupit izeneko haziendean Eusebio Ruiz de Luzuriaga (1816-1865) erbesteratu karlistak hasi zuen azukre industria aipa daiteke. Izan ere, gai izan zen etenezinak ziruditen inertzia historikoekin eteteko, baita Negros mendebaldean ekialdean bezain astuna zen kultura tradizionaletik askatzeko ere. Labur beharrez, Luzuriagak bere azken urteetan egindako lorpenak besterik ez dira hona ekarriko, ordena kronologikoan: hala, 1849rako, Negrosetako hiru azukre ekoizleen parean zebilen, tartean Gaston ingeniaria, uharte honetan azukre industria ezarri zuena;²⁷ 1854an, ekonomika labea jarri zuen; eta 1856an, hazienda Jose Ruiz de Luzuriaga y Guikin (1843-1921) bere semearen kontrolpean geratu zenean, Ingalaterra eta Kanadatik inportatutako lurren makina txikiak eta burdin arrabolak instalatu zituen.²⁸

Orain arte aipatutako euskal ekimen guztiak aurrera atera ziren arren, aipatu beharra ere badago, garai berri hartako ezaugarri bezala, izan zela, arrazoi batengatik edo bestengatik, bidean alferrik galdutako hainbat ekimen eta gauzatu gabeko hainbat proiektu. Ildo honetan, Mariano Arrietaren kasua ekar daiteke gogora, erakusteko besterik ez bada ere gurariak eta hobariak ez direla beti elkar hartuta joaten. José Sáenz de Vizmanos Negrosetako gobernadore militarren iloba eta lege-kontuetaarako laguntzaileak, azukre industria goraka hasi aurretik ere antzemana zeukan azukregintza aberastasun-iturri oparoa izan zitekeela. Izan ere, 1848 inguruan bere ohiko kakao, kafe eta abakako plantazioak landatzen berrekin

24 Echaz (1894), 383-385 or.; Sa-Onoy (2003), 98 eta 107 or.

25 1866tik 1876ra, gutxi gora behera, Ynchausti konpainian egin zuen lan Manilan.

26 Evaristo Zulueta lloiloko Oton herriko diruzaina eta notarioa izan zen ere. *Anuario del comercio, de la industria, de la magistratura y de la administración de España, sus colonias, Cuba, Puerto-Rico y Filipinas, estados hispano-americanos y Portugal*. Madrid: Bailly-Bailliere e Hijos, 1908, 4. lib., 407 or.

27 Ekoizpena *pico* unitateetan emanez, hau da Negrosen 1849an emandako produkzioa: Agustín Montilla, Bago haziendean (1000 *pico*); Yves Germaine Gaston, Silayn (900); Luzuriaga, Lupiten (700); eta Tia Sepa, Talisay haziendean (400).

28 Echaz (1894), 22-23 or.; Sa-Onoy (2003), 95-96 or.; Martínez Cuesta (1980), 296 or.; eta Ricardo L. Jr. Gallaga, *The R. de Luzuriaga Survival Kit. Part Two. The First Three R. de Luzuriaga Generations & Their Ancestral Homes*. Bacolod: UPress USLS, [n.d.].

zioanean, zerbait berri bezala agertzen zaio azukre kanabera landaketa, eta, asmo horrekin, lur sail handi bat eskuratzen du.²⁹ Ez dirudi, hala ere, bere aurreikuspenak gauzatu zirenik, handik gutxira zortzi urteko zigorra jaso baitzuen Filipinetan, dirua bidegabe erabiltzeagatik.

Horretaz gain, hazienda ugazaben gehiegikeriak, ez nahi litzatekeenak bezain behin-behinekoak, azukre industriaren aurkakoak izan ziren, oihartzun publikoa izan zutelako besterik ez bada ere. Orduantxe hasi ziren *hacendero* batzuen portaerak eta jokabideak publikoki agerian jartzen; edota, hobeki esan, haien jokaera langileekin anarteraino pentsaezinak ziren gailurretaraino heltzen. Hau da, esate baterako, Nicolas Amenabar eta Alejandro Amechazurraren kasua; 1904ko martxoan, iraganean jasotako tratu txarraren akorduan, Amenabarren sukaldari Rufo Oyosek eta bere talde armatuak Amenabar bahitu egin zuten, gero handik gutxira askatu bazuten ere (eta antzeko zerbait gertatu zitzaion Amechazurrari Santa Teresa izeneko bere haziendan, Bagon, La Carlotatik oso gertu).³⁰ Bahiketa hauen egoslekua Negrosetako babaylan izeneko matxinadan bilatu behar da, Papa Isio lider erlijiosoa izanik mugimenduaren iturburu.³¹

Laborantza eta ekoizpenetik haratago, argi dago azukregintzak edo, hobeki esanda, honen merkataritzak eta hedakuntzak, bi agente mota behar zituela. Batetik, azukrea bera komertzializatu eta munduko merkatuetan ipintzeko gai zena. Arlo honetan hainbat euskal etxe aritu zen; honen lekuko goiztiar Eugenio Otaduy Lizaur (1804-1854) izan zen, Filipinetan Jardine, Matheson & Co.-ren filiala sortu eta 1830eko hamarkadatik aurrera azukrea Bonbai eta Ingalaterrara eramaten aritu zena.³² Bestetik, nekazal gizartearen baliabide eta kapital maileguak emateko prest zirenak. Arlo honetan nabarmendu zen, adibidez, Nicolas Olaguibel Esnal (1809-1890) armadore, merkataria eta bankaria plentziarra, hasierako garaietan azukre laborariei maileguak eman zizkielako.³³ Bi ekinbideok elkarri hertsiki loturik daude—elkarlotuak, uztartuak bainoago—; bi hauek batik gabe, nekazari xumeak ezin zuen uztarik merkaturatu, ez han ez hemen; baina, era berean, aurrera jo nahi zuen nekazariak, lehenago edo beranduago, merkataritza-kapitalaren premia izango zuen, zirkulazio-esparruan bakarrik ez, ekoizpen-esparruan ere sakondu eta eragin ahal izateko.

Euskaldunek bultzatu nahi izan zuten azukre hazienda, eredu integralekoa izan zen, eta, ahal zelarik, sendikoa edota aberkidea, zuzendaritza eta gerentzia arloetan behintzat. Azukregintzaren jarduerak, dibertsifikatuak bezain sofistikuak, haziendako muga fisiko eta

29 Nolasco (1970), 43-44 or.; Romero (1974), 32 or.


30 *Memorias de Negros Occidental* liburuan, Camilo Lasalak bahiketa honen berri ematen du. Lasala (1891), 152-153 or. Amechazurrari buruz, ikus: Génova (1988), 29 or.

31 Gidari espirituala bihurtu aurretik, Papa Isio azukregintza boomaren biktima izan zen: bere gurasoek Bisayara emigratu behar izan zuten lurra galdu zutenean, azukre haziendako jabeek, hala ala nola, beraien lurra eskuratu ondoren. Aldecoa-Rodríguez (1983), 189 or.

32 Fradera (1999), 147-148 or.

33 Delmas (1970), 158-160 eta 224-229 or. Esan beharra dago Olaguibelek onura ateratzea Espainiako legegialarioari, zeren, honen arabera, 1863ra arte atzeritarrei lurra edukitzea eta nekazaritzan aritzea debekatu egin zitzaizkien.

arauen barnean antolatzen ziren. Azukregintzak landarearen laborantza eta garraioa (langile finkoek edota kontratatutako soldatapekoek egindakoak), inoiz ez *ex nihilo* sortuak, bideratu beharra zekarren, eta ondoren, haziendako beste unitate batzuetan, prozesamendu maila guztiak osatu, garbiketarik (beti ezpurutasunak kentzeko asmoz) erauzketa eta ateratako zuku masa zentrifugazioraino.



Iturria: *Civil Affairs Handbook: The Philippines. Section 7: Agriculture.* Washington: United States Government Printing Office, 1945, 52 or.

Hazienda hauetan, lantaldea bi motatakoa zela esan daiteke, oro har. Batetik, administratzailea eta unitate bakoitzeko arduradunak leudeke (ontsala, nagusiaren konfiantza osokoak eta Euskal Herrikoak), labrantza, errota eta langileen ardura zituztelarik. Bestetik, eguneroko jardueretan inplikaturako jornalariak eta hauen langilezainak. Bien batuketak harreman-leku bat osatzen zuen—ekoizpen industrialeko toki soil bat baino haratago zihoana—, bertan, teknologia eta azpiegituraz gain, harreman sozial eta ekonomiko era ezberdinekoak batzen baitziren. Beraz, leku fisiko horretan gertatzen ziren praktiken eta garatzen ziren harremanen baturak osatzen zuen hazienda. Interakzio hauek eta beraien esanahiak definitzen eta, eten gabe, berdefinitzen zuten haziendaren kontzeptua.

3. Aukerak eta oztopoak azukre industrian

Euskal *hacenderoak* eta merkatariak ez ziren izan Filipinetako azukre industrian parte hartu zuten bakarrak. Artxipelagora bidalitako euskal militarrek ere hartu zuten parte, zeharka baina, idatzi eta argitalpen bidez. Camilo Lasala Goitia (?-1905) eta José Génova Iturbe (1858-1919) horren lekukotasuna eman zuten. Segur aski beste norbait aurki daiteke. Atal honetan ikusiko denez, euskal ekarpena azukre industriaren dimentsio guztietan islatu zen.

Amaren aldetik jatorri arabarrek militarra Jose Génova, Filipinetako azukre industriari buruz idatzi zuen espainiar militar bakarrenetarikoa izan zen. Zelan eta zergatik interesatu zitzaion azukrearen gaia ez dago guztiz garbi gaur arte kontserbatu diren artxiboetan. Génovak Gipuzkoako karlisten aurkako ekintzetan parte hartu zuen eta hainbat akademia militarretan irakatsi zuen, 1891an Filipinetan guardia zibilaren lanpostua eman zioten arte.³⁴ Negrosen zerbitzua egin zuen orduetik 1895 arte. Azukre industriari buruzko erreferentzi lehena eta bakarra Madrilan 1896an argitaratutako lana da, *El Archipiélago Filipino: Ligeros apuntes sobre su colonización*. Hainbat paragrafo transkribatzea merezi du, garai hartan azukreak uharteko ekonomian zuen garrantzia azaltzeaz gain, *hacenderoek* zituzten arazoak aztertzen dituelako espainiar mentalitate kolonialista hutsetik:

Egunez egun, Negrosen produkzio nagusia azukrea da, zalantzarik gabe gure izaeraren egunerokotasuna delako. “Firin-faran landutako azukrea, ondo atera da, beraz, nik ere landuko dut”. Eta horrela, Negrosen finkatu diren guztiak azukre laborantzan aritu dira soilik [...]”³⁵

Azukreak bera bezain garrantzitsuak diren beste produktu batzuen aldean (kakaoa, kafea, abaka eta kopra) abantailak ditu, azkarrena izateagatik, landatu eta hamalagarren hilabetera, bere lehen produktuak merkaturatzeko gai delako, *calan-anan* izeneko kimuak lurrazpian utziaz; hau horrela izanik, goldeari bira bat edo bi emanaz beste uzta bat ekoizten da hurrengo hamabi hilabeteetan, aurrekoarekin

³⁴ ‘Génova Iturbe, Juan’. Segoviako Artxibo Militar Orokorra, J-125 paper-sorta, 0 esp. Ikusi ere Anduaga (2019).

³⁵ Génova (1896), 17 or.

alderatuta kantitatean galdutakoa kalitatean irabaziz. Behin azukre-kanabera landatzea ongi doanean, kafea, kakaoa eta tabakoa lantzen jarrai dezakegu.³⁶

Liburuan, Génovak azukre industriaren hedapena eta arrakasta hainbat neurri politiko eta polizial hartzearen menpe daudela azaltzen du, *hacenderoak* garai hartako mehatxuetatik babestuko lituzkeenak, hala nola mailegu-emaileen gehiegikeriak eta boterea (interes gehiegi kobratzen baitzuten), nekazaritza bankurik eza, eta, bereziki, indigenen nagikeria eta utzikeria. Bere ekintza plana zorrotza bezain alderdikoia zen:³⁷

Neurri gogorak hartu behar dira dena zaindu eta derrigortuko duen agindu bat emateko; alferkeriaren aurkako legea, Negroseko nekazaritza ekoizpenarekin loturik dagoen soldata arazoa saihestu nahi bada. Argi dago langileen kopurua handitu behar dela nekazaritzaren garapenaren beharreatatik [...]

Gaur egun ezinbestekoa da egonean eta ezer egin gabe eguna pasatzen duten askok, beraien jaioterriko herrialde ederraren emankortasunaz profitatuz, lan egin dezaten aldaketarako. Gure nekazariak milaka peso gastatzen dute azukre-kanaberaren laborantzarako eta ehoketarako beharrezkoak diren langileak lortzeko. Batzuetan, dirua galtzen dute izurrak edo trikimailuak direla eta, baina baita ere langileek ihes egiten dutelako egun bat edo bi lan egin ondoren, eta beste arrazoi batzuenatik ere [...]

Lurruntzi tarifen gastu handiak, transferentzia eta langileak kontratatzeko egin beharreko aurreratutako ordainketa alde batera utzita, *hacenderoek* beraien soroetan kanabera utzi behar izaten dute, lurra lantzeko eskulan faltagatik eta langileak bilatzeko denbora faltagatik ere; horren ondorioz, hiru mila inguru azukre *picul* landatu gabe utzi behar izaten dute.

Ez gara nekatuko alferkeriaren aurkako lege bat beharrezkoa dela errepikatzeaz. Langileen zaintzarako talde bat sortzea beharrezkoa da, zalantza barik nekazarien gustukoa eta arauak agindutakoa izan beharko lukeen taldea. Ez dago aitzakiarik Indiak aurkitu zuena, Legazpiko Artxipelagoan falta izateko.

Génovaren apunte sozioekonomikoak, azukre hazienda eta azukre-kanaberaren aukera komertzial eta nekazaritzakoei buruzkoak hein handi batean, ez ziren beraren baratzeko baratzuria, Aita Fernando Cuencak bildutako datuetan oinarritutakoak baizik. Originalak ere ez ziren, gehitu beharra dago, apunte hauek Negrosen, bi urte lehenago Robustiano Echauek antzeko gaia jorratu baitzuen 1894an argitaratutako *Apuntes de la Isla de Negros* liburuan (honen eragina Génovarengan agerikoa da, izenburu beratik hasita). Hala ere, esan beharra dago autoreak bere ahalegina nola enfokatu zuen helburu sozialaren meritua—edo demeritua, nola begiratzen den arabera—baduela, espainiarrak artxipelagora bizitzera joatea animatzen zituelako. Zeren eta Génova ez baitzen deskribapen soila ematera

36 Génova (1896), 28-29 or.

37 Génova (1896), 76 or.

mugatu, beste idazle batzuk egin zuten bezala. Okupazio plan kolonialista bat proposatu zuen, nekazaritza kolonien ezarpena aztertuz Espainiako jornalari behartsuentzat.³⁸ Plan honek bazuen hainbat fase, azken biak hauek izanik:³⁹

Behin etxeak eraikitakoan, hautatutako familiek Espainiatik Filipinetara nabigatuko zuten etxe horiek bete zitzaten, eta horrela helmuga berrira iritsitakoan ez zuten arazorik izango ostaturatzeko. Azkenik, azukre zentral bat sortu [beharko genuke], penintsular gutxi batzuekin langile gisa, beraien inplikazioak prozedura formalak bete beharko lituzkeelarik.

Hemen aztertuko den bigarren idatziaren gaia (lehenengoa bada ere, ekoizpenaren datari erreparatzen badiogu), azukre industriaren halabeharrari zegokion hertsiki ere. Hala ere, aurrekoa ez bezala, bere ikuspegia ez da aldebatekoa eta kolonialista; honek, *a contrario*, aldezen du ugazabek langileenganako gehiegikeriarik ez izateak azukre industriari onurak dakarzkioda, balazta gisa besterik ez bada ere. Lan honen egilea Camilo Lasala Goitia zen, bere bizitzaz gutxi ezagutzen den infanteriako militarra.⁴⁰ Bere lehen notiziak 1883koak dira, jadanik komandantea izanik, Filipinetara joateko hautagai zerrendan sartu zenekoak, nahiz eta 1886an oraindik penintsulan zegoen, Lugoko erregimentuan.⁴¹ 1890tik 1892ra, teniente koronela zela, Mendebaldeko Negroseko gobernadore politiko-militarra izan zen.

Lasalak topatu zuen Negros uhartera ez zen Arrietak eta Ruiz de Luzuriagak, mendearen erdi aldean, ezagutu zutena, ezta 1870ko hamarkadako Tirso Lizarragarena ere. Iloiloko portuaren irekierak (1855ean) eta nazioarteko merkataritzaren irekitzeak hainbat produktuari (horien artean, azukrea, 1859an), bideragarri egin zuten azukrea Visayas eskualdetik esportatzea— eta ez Manilatik, non gastuak bikoitzak ziren.⁴² Gainera, Moroen erasoaldiak bertan behera uzteak eta lurruntzien iristeak uhartera, lagundu zuten, inoiz baino gehiago, merkataritza eta negozioetarako mesedegarria zen lasaitasun giroa sortzen.⁴³ Hala eta guztiz ere, hazten zihoan azukre monokultiboak, paradoxikoa irudi arren, oso gutxitan ez bezalako gosetea eta menpekotasuna ekarri zituen Negrosera. Izan ere, gizarteak apenas aurkitu zuen sostengurik ia osoki esportaziora bideratuta zegoen azukre industrian nazioarteko azukre

38 Plan honi buruz, ikusi Génovaren lanaren ingelesezko itzulpenari Violeta Lopez-Gonzagak (1988) emandako hitzaurrea. *The Philippine Archipelago (Brief Notes on the Formation of Agricultural Colonies in the Island of Negros)*. Manila: University of St. La Salle, Itzulpena Sylvia Montenegro-Morenona da.

39 *Génova (1896)*, 76 or.

40 Anduaga (2019).

41 Zamorako Sarjentuen Akademian ere irakaslea izan zen urte hauetan. De la Torre (2015), 71-75 or.

42 Jagor (1875), 303 or. Ikusi ere 1860ko hamarkadan Negrosen azukre industria bultzatu zuen aintzindariaren testigantza, Nicholas Loney (1964).

43 López-Gonzaga (1994), 64-65 or.; McCoy (1982), 298-302 or.; Sa-Onoy (2003).

merkatuaren krisi larria lehertu zenean, azukrea landatzeaz harago, ez baitzen irabazpide mardulik eskainiko zukeen arrosa labrantzaren aldeko nekazaritza politikarik ere.⁴⁴

Justu testuinguru honetan Madrileko agintari militarrek Negroseko nekazaritza industria eta ekoizpenaren berri emateko agindu zioten Lasalari. Eta hark, agindu hori gorpuzten duen txostena, *Memorias de Negros Occidental*, 1891an aurkeztu zien bere nagusiei, gobernadore kargua hartu eta gutxira. Bertan, Lasalak azukrea, abaka eta arrozaren urteko esportazioak aztertzen ditu, baita herrialde erosleak ere. Txostena, gutxienez, bi arrazoiengatik da aipagarri. Lehenengo eta behin, biztanleek pairatutako gosete gorri luzea idatzirik uzten duelako. Arroza, dio, “behar-beharrezkoa da eta uhartea sufritzen ari den hamar urteko goseari aurre egiteko arrozaren laborantza lehentasuna izan beharko luke”.⁴⁵ Auziaren iltzea, bere iritziz, Negros 1870eko hamarkadaz ezkerro, Saigongo frantziar koloniatik lloilon barrena gainprezioan inportaturiko arrozaren menpe egotean zegokeen.

Bestalde, azukrearen arreta hori—harkorra, nahiz eta interesatua, edota interesduna zelako hain justu ere harkorra—, neurri batean gehiegizkoa izanagatik ere, hainbestearino non arrozaren laborantza baztertu baitzuen, bere ekoizpena eta merkataritza ez zeuden oztopo handietatik libre. Horren aurrean, Lasalak konponbide garrantzitsu batzuk proposatzen ditu, teknologiaren arloan ez ezik, legezkoan eta finantzarioan ere eragiten zutenak. Lehenengoen artean, adibidez, azukrea ehotzeko sistema tradizionala teknologia modernoarekin ordezkatzeko defendatzen du; azken haien artean, neurri zehatz andana planteatzen du, hala nola kredituak ematea nekazaritza banku baten sorreraren bidez, azukre-erremolatxaren lehia kentzea azukre inportazio kuotak ezabatuz, eta Hipoteka Legea edo Jabetza-Erregistroa aplikatzea. *Hacendero* eta langileen arteko harremanen auziari dagokionez, hainbat iskanbila sozial eragin zituzten gehiegikeriekien amaitzeko—ez mailegu-emaile eta langileenak (Génovaren obsesio eta desio), baizik eta ugazabenak eurenak— legezko neurriak hartu behar direla ohartarazten du. Hemen, euren langileek bahituriko Nicolas Amenabar eta Alejandro Amechazurra euskal *hacendero*en adibideak aipatzen ditu. Laburbilduz, azukre industria sustatu nahi duen *hacendero*ak, pilatu eta metatu ez baina ekoizpenerako eragozpenak kenduko dizkion barne giza-bertute batzuk behar ditu.

4. Negroseko Estatu Federala: espainiar okupaziotik amerikarrera

Negroseko nekazari komunitateak sekulako gaitasuna erakutsi zuen aldaketa politikoetara egokitzeko. Espainiako okupazioaren aurkako 1898ko iraultzan, Negros uharteko Errepublika Federala aldarrikatu zuten. Errepublika hilabete gutxira bertan behera gelditu bazen ere, indar amerikarrei amore eman zietenean, gaur egun arrotza dirudigu bere inspirazioa.

44 Larkin (1993), 61-82 or. Europako azukre-erremolatxa industria igoerarekin batera, iritsi zen krisialdia Negrosen. AEBko New York Commodity Exchange merkatuan saltzen hasi zenean soilik, krisi-aurreko ekoizpen egoera berreskuratu zen (1893an, zehazki). Sa-Onoy (1990).

45 Lasala (1891)—López-Gonzaga (1994), 106 or., aipatuta. Izan ere, Lasalaren arabera, 1890an inguruan, labratutako 4 hektareatik, 2,6 azukreari zegozkien eta bat bakarrik arrozari. López-Gonzaga (1994), 106 or.

Harrigarria dirudigu *hacendero* elite batek errepublika bateko prozesu konstituziogilea burutu dezakeenik uharte batean, Filipinetako erregimen kolonialaren aldaketaren egoera geopolitikoa maiz kontuan ez dugulako hartzen. Atal honetan erakutsiko den moduan, Negros uharteko Errepublikaren altxamendua eta aldarrikapena, hein handi batez euskal (jatorriko) ekintzaileek bultzatua, espainiar politika kolonialaren aurrean sortutako ezinegona eta saminaren erantzunaren parte izan ziren.

1898ko Negros ez zen oraindik, Aniceto Lacsonek lehendakaritzapean, 1899ko martxoan estatubatuarren indar inbaditzaileei amore eman eta protektoratu amerikar gisa eratuko zen hura, Filipinetako Lehen Errepublika jaioberririk bananduta.⁴⁶ Negroseko gizarte zati handi batek pairatzen zuen desberdintasun eta gosearekin oharturik eta obsesionaturik, iraultzaile eta *hacendero* liberal batzuek espainiar indarren aurka armak hartu zituzten eta beraien eta Negroseko biztanleen interesak defendatu zituzten, bai lehengo zapaltzaileen aurrean eta baita aurki menderatzaile berri bihurtuko zirenen aurrean ere. Azken hamarkadetakoa desberdintasun eta injustizia sozialak izan ziren Negrosen estatu federal baten aldarrikapena bideragarri bihurtu zutenak, neurri handiago edo txikiago baten, euskal ekintzaile askok lagundu zuten ekimena.⁴⁷

Aldarrikapen honen historiaurrea, neurri batean, berreraiki daiteke Juan Anacleto Aranetaren (1852-1924) ibilbidea aztertuz.⁴⁸ Bagon (Mendebaldeko Negrosen) jaioa, Aranetak merkataritza ikasketak egin zituen Manilako Ateneo eskolan eta ondoren udal kapitain eta *hacendero* apal gisa lan egin zuen, 1897an Espainiako agintariek espetxeratu zuten arte, matxinatu izatea leporatuta.⁴⁹ Kartzelatik atera ondoren, lau mila iraultzaileko talde bat antolatu zuen Negrosen, Lacson eta beste buruzagi batzuen laguntzarekin, halako menturaz 1898ko azaroan Errepublika aldarrikatu zutela, Isidro Castro gobernadoreak amore eman eta gero. Ondoren osatutako gobernu kantonalean, Gerra Idazkari karguan aritu zen, Aniceto Lacson lehendakari zela. Hala ere, hurrengo hilabeteen soldadu estatubatuarren indarrez sartu zirenean, bere kideak hertsatu zituen amore eman zezaten, haien nagusitasuna ikusita, eta honek amerikarren uhartearen okupazio eroso ahalbideratu zuen.⁵⁰

Ukaezina da, hala ere, Aranetak Negroseko iraultzan izan zuen inplikazioa bere haziendaren patuarekin lotuta zegoela hertsiki. Izan ere, bere bizitza erabat aldatuko zen 1891ean alargundu zenetik. Denbora hartan, Europa eta Estatu Batuetan bira bat hasi

46 Negros Estatu Batuetako protektoratu bat izan zen 1901ko apirilean Mendebaldeko Negros probintzia sortu zen arte, jada anexionatuta zegoen Filipinen barruan.

47 Negroseko Errepublikari buruz, Aguilar (2000), 26-52 or.; Sonza (1962), 49-56 or.; Diamonon (1920), 22-25 or.

48 Juan Aranetaren bizitza eta lorpenen inguruan asko idatzi da. Hemen kontsultatuko lan biografikoak dira: "Araneta, Juan", Galang (1950), 3. lib., 446-447 or.; Artigas (1917), 705-712 or.; Marcelo S. Lagmay, "Juan Araneta (1852-1924)", Villarroel (1965), 37-38 or.; Manuel eta Manuel (1986), 53-55 or.; eta Zaide (1954), 233-234 or.

49 Manilako Ateneoan merkataritza-peritu titulua atera zuen.

50 Aguilar (2000), 34-35 eta 45-47 or.

zuen Claudio Reina lagunarekin, itxuraz nekazaritza aurrerapen teknologikoak lehen eskutik ikusteko asmoz. Baina Artxipelagoko egoera politikoak Espainia eta Frantziako filipinar propagandistekin harremanetan jartzea bultzatu zuen, berarengan eragina izan eta itzulerarako Negrosetako lider erreformistetako bat bihurtzera iritsi arte. Aranetaren egitasmo erreformistek agintari kolonialen susmoa piztu zuten. Hauek azpijokoetan aritu ziren lur jabetza kentzeko, bere familiarekin Kanlaon mendira bizitzera behartuz, non lur berriak landu zituen. Nekazaritzarako grinak Ingalaterratik hainbat makineria inportatzera eraman zuen, hala nola, azukre-kanabera errota bat, arroza-jotzeko makina bat eta abaka makina enbalatzailea, eta hauekin aurki garatu zuen hazienda produktiboa Dinampalan. Han mendekua hotz zerbitzatzen den plater bat dela barneratu zuen.⁵¹

Aranetak jorrotutako ereduak bere eragina izan zuen, handia gainera, beste euskal (edota euskal jatorriko) *hacenderoen* artean, Negros uhartekoaren artean eskierki, 1890ko hamarkadan, Agustín Amenabarrengandik hasita. Seguru antzean Nicolás Amenabarren familiartekoa izan zena, nortasun eta eragin handiko *hacenderoa* izan zen; horren lekuko da 1896an Bacolodeko Nekazaritza Elkartearen helburuak zehaztuko zituen Kontseilu Zentraleko zuzendarietako bat izan zela—José Ruiz de Luzuriaga, Fortunato Jugo eta euskal jatorriko beste batzuekin batera.⁵² Hala ere, agian azpimarragarriena zera da, 1898an Negrosen eraikitako gobernu kantonalean Amenabarrek izan zuen parte hartzea, Nekazaritza eta Merkataritza delegatu bezala, Aniceto Lacsoen lehendakartzaren esanetara. Gobernu hau ibilbide laburreko trena izan zen eta Amenabarren bitzita azukre industriari lotuko zitzaion etorkizunean: urte batzuk geroago, Pilar Amenabarrekin Mandalagan haziendaren jabea izango zen.⁵³

Negrosetako Errepublikak eraikuntzan daukagun euskal ekarpenaren beste froga zuzena José Ruiz de Luzuriaga (1843-1921) da, Eusebio *hacenderoaren* semea, bera izan baitzen gobernu kantonaleko Batzar konstituziogilearen presidentea 1898ko azaroan. Gehi diezaiogun honi, Mendebaldeko Negrosetako gobernadoreak eskatuta, Espainiako indarren errendizioan bitartekari lanetan jardun zuela, iraultzaile eta agintari kolonialen artean.⁵⁴ Ez da ahaztu behar ere Ruiz de Luzuriaga, espainiarrekin bezala, bitartekaria izan zela Estatu Batuko indarren eta Negrosetako federatzaileen artean otsailaren 1899an. Herriaren bakea

51 Araneta, adeitsua langileekin eta aldi berean errespetatua bere “naturaz gaindiko” botere-
engatik, paternalista bezain bihozbakoa, *hacenderoen* “mestizo boterearen” pertsonifikazioa izan
zen. Horrela deskribatzen du Aguilarek (1998), 175-176 or.: “Araneta agertokiaren erdian per-
sonai mitiko gisa nabarmendu zen, fraideen Boterea desegiteko ekintza erabakigarri bakar ba-
ten bitartez eta, modu honetan, erreprimitutako subjektu kolonialen nahia asetzearen bitartez.
Horrela, *hacenderoen* Mestizo Boterearen baieztapen historikoa pertsonifikatu zuen Aranetak”.

52 Artigas (1917), 600-607 or.

53 Hazienda horretako lursail handi batzuk José Benares Montelibano hacendero boteretsuari sal-
duko zizkion 1920an.

54 José Ruiz de Luzuriagari dagokionez, Galang (1950), 3. lib., 492 or.; Zaide (1954), 233-234 or.

berreskuratu nahiak bultzatu zuen horretara dudarik gabe, ezin ukatuzko arrazoia, baina tartean bazegoen sendo tinkaturiko diplomaziarako omena eta kemena ere.⁵⁵

Horren ondorioz, Negrosetako konstituzioa prestatzeaz arduratuko zen batzordeko lehendakari izendatu zuten, honen sinatzaileetako bat bihurturik 1899ko uztailean.⁵⁶ Francisco Varona historialariak gogorazi du, Filipinetako gobernu mailan, Ruiz de Luzuriagak horrenbestearaino ospe bakezalea zuen, ezen eta 1901ko irailean “Manilara deitu zutela Filipinetako lehen Batzorde Zibilaren kide izateko”, herrialdeko organo legegile eta exekutibo garrantzitsuenera, hain zuzen ere.⁵⁷ Horrela, Benito Legarda eta Trinidad H.. Pardo de Taverarekin batera (euskal jatorrikoak hauek ere), “administrazio kolonial bateko gobernu gorenean ahotsa eta boza zituzten Asiako hego ekialdean lehenak bihurtu ziren”.⁵⁸ Negrosetako gobernadore karguaren izendapena, 1901an, Filipinetako Lehen Batzordeko buru zen William Howard Taften eskutik, bere ibilbide politikoaren gailurra izan zen.

Laburrean, elite *hacenderoen* pentsamolde pragmatista, ia beti aurrerabideei eta onurei begira, guztion gogoan dagoen printzipio batera bil daiteke: gizarte zibilean zetorren edozein erregimen politiko aldaketak, zenik eta kolonialistenak ere, beraien interes ekonomikoen mesedetan gertatu behar zuen. Honek espainiarren erregimenerako, Negrosetako errepublikarako eta ondoko borrokarako ere balio zuen; hala zer baitatu zen estatubatuarren okupazioarekin eta, batez ere, bigarren hamarkadako neurri politikoekin. Izan ere, gerrateko sarraskiak eta kalteak beldurgarriak izan baziren ere, nolabait mesedegarria izan zen *hacenderoentzat*, taldeka eta bakarka, geroago etorri zen azukre oparoaldia, bai AEB-en azukre monopolioarengatik, bai arantzelen jaitsieragatik sektore honetan. Horrela sortu zen, sutautsen artean txingarra bezala, hazienda zentrala.

5. Hazienda zentralak, espazio ekonomiko gisa

Filipinetako azukre industriak erabateko aldaketa jasan zuen XX. mendearen hasierako hamarkadetan, bai azukrea ehotzeko eta fintzeko teknologiarri zegokionez zein lan-banaketari zegokionez. Eraldaketaren sinboloa *azukre zentralak* izan ziren, hau da, errota zentrifugo handiko lantegiak. Eskala handiko erroten ezartzearekin, azukre ekoizpena produkzio gune eraginkorretan soilik kokatu zen. Honek, ehotzea haziendatik kanpo geratzea ekarri zuen, *muscovado* errota tradizionalaren desagerpena eraginez. 1914 eta 1927 bitartean, 17 azukre zentralak 820 hazienda tradizional ordezkatu zituzten.⁵⁹ 1930eko hamarkadan

55 ‘Testimony of Señor Luzuriaga, Manila 11 September 1899’. In: *Report of the Philippine Commission*. Vol. 2. Washington, D.C.: GPO, Bureau of Insular Affairs, U.S. War Department, 1900, 414-422 or.

56 Izan ere, José Ruiz de Luzuriaga izan zen Diputatuen Ganberako Presidentea (1899ko uztailetik azarora). Goian aipatutako Juan Araneta eta Agustín Amenabarrez gain, bazegoen beste euskal jatorriko kidea Errepublika berriko gobernuan: Eusebio Luzuriaga, Ogasun Idazkaria.

57 Varona (1965), 110 or.

58 Cullinane (2003)—Mojares (2006), 147 or. aipatuta.

59 Billing (1992), 160 or.; McCoy (1982).

zentral fabrikak nagusi ziren. Guzti honek ere funtsezkoa bezain ezezaguna den aldaketa ekarri zuen: hazienda txiki eta tradizionala fabrika industrialarengatik ordezkatzeari,⁶⁰ edo, bestela esanda, leku fisiko estatikoa zena mugimendu eta fluxuzko espazio batengatik ordezkatzeari, non mozkin eta baliabide optimizazioarekin lotutako interes ekonomikoek agintzen zuten—eta ez harremanek, lehen izaten zen bezala.

XX. mendeko lehen bi hamarkadak giltzarriak izan ziren Filipinetako azukre industrian. Urte horiek, zentzu oso ez zorrotzean, “inflexio puntu” bat deitu litekeen lekukoak izan ziren. Atzean geratu ziren iraultzaren eta gerraren arrastoak, azukre ekoizpenaren beherakada nabarmena eragin zutenak. Alde batetik, AEBko Sugar Trust-ek Filipinetako azukrearengan jarritako arantzel handiak kenduko zituen, hasieran hartu zuen estrategia—Kuba, Puerto Rico eta Hawaiiko industriak soilik babestearen aldekoa—aldatuz. Honi gehitu behar zaio 1909ko Payne-Aldritch Legea, Filipinetako produktu askoren zergarik gabeko inportazioa, azukrea barne, baimentzen zuena.⁶¹ Bestetik, Panamako kanalaren irekiera ofizialak, 1914an, onuragarri bezain ustekabeko eraginak ekarri zituen Filipinentzat, nabigazio transozeanikoa erraztu eta kostalde atlantikoko amerikar findegietara garraio kostuak murriztu baitzituen. Ildo beretik, Filipinetako Banku Nazionalaren (PNB-ren) fundazioak, gobernuaren aginduz eta kontrolpean, 1916an, Filipinetako industria eta nekazaritza finantzatzeko asmoz, *hacendero* eta merkatari askoren azukre negozioak aurrera eramaten lagundu zuen.⁶² Inflexio honen hasiera, Negroseko lehen azukre zentralaren sorreran sinboliza daiteke: San Carlos Milling Company zentrala, 1912an sortutakoa, hain justu ere.

Azukre industriak aldaketa horiek nabaritu zituen maila guztietan, produktiboan zein sozialean eta antolakuntzakoan. 1902 eta 1938 artean, Filipinetan azukre lantzerako lursaila 72.000tik 230.000 hektarea izatera pasatu zen (ehuneko 320 hazi zen, beraz).⁶³ La aldi berean, Negrosen azukre esportazioak 1,7 milioi *picul* izatetik (1913an) 10,3 milioira pasatu ziren (1932an).⁶⁴ 1934. urterako, azukrea dagoeneko Filipinetako esportazioen ehuneko 60a zen. Zentralen hazkundeak Nueva Ecija eta Bulacan probintzietan azukre-kanabera lantzearen desagerpena ekarri zuen, Negros eta Pampangan kontzentratzen zen bitartean. 1918. urterako, PNBk 5 zentralen eraikuntza finantzatu zituen Negrosen; eta 1934. urterako, guztira berrogeita bost izatera iritsi ziren Filipinetan,⁶⁵ hauetariko hamarrek euskal jatorriko jabetza zutelarik (ikus 1. Taula).

Gizarte mailan, azukre industria desberdintasun sozioekonomikoen areagotzearen lekuko izan zen. 1920ko hamarkadan, esportazio eta ekoizpenaren gehikuntzak aberastasunaren

60 McCoy (1982), 326 or.; Larkin (1993), 54-171 or.; Aguilar (1998), 188-228 or.; Billig (2003), 44-45 or.; Galloway (2005), 15-16 or.

61 Lopez-Gonzaga (1989), 74 or.; Lopez-Gonzaga (1991), 34-54 or.

62 Billing (1992), 160 or.

63 De Borja (2005), 107 or.

64 McCoy (1982) 328 or.; Billing (1992), 160 or.

65 De Borja (2005), 107 or.

zentralizazioa eta gizarte segmentazioa sortu zituen. Filipinak munduko azukre-merkatuan sartzearekin batera, desorekatu egin zen lur banaketa: haziendak tamainaz eta ekoizpenaz handitzen joan ziren heinean, geroz eta lursail gehiago *hacendero* gutxi batzuen esku geratzen joan ziren.⁶⁶ Horrek, aldi berean, geroz eta indartsuago zen landatzaile industrial klase bat eta mugimendu sindikal baten hasiera sortu zituen. Filipinetako Azukre Elkartearen kasua da, Tirso Jr. Lizarraga denbora luzez honen fiduziario izan zelarik.⁶⁷ Industrializazio honek Negroseto gizartearen bi elite boteretsu bezain anker sortu zituen: azukre *hacenderoak* eta azukre merkatariek. Merkatariei eta bankariei prezioak manipulatzeko leporatzen zieten, *hacendero* eta errotarri handien kalterako sarritan.⁶⁸

Antolakuntza mailan, azukre industriak 1930eko hamarkadaren erdialdean azukre ehotze-barrutien sorreraren eragina izan zuen. Handik aurrera, azukregintzaren antolaketak forma hierarkikoa hartu zuen. Azukre lursailak barrutietan banatzerakoan, barruti bateko *hacenderoek* beraien azukre kanabera ehotu behar zuten (kontratuaren bidez) hitzarmena egina zuten barruti horren zentralarekin, eta ez beste batekin.⁶⁹ Azukrea normalean trenez garraiatzen zenez, *hacenderoek* ezin zuten aukeratu beste barrutiko zentral bat ehoketa lanerako. Antolakuntza hierarkikoa, behar bada, bertikalagoa eta gizatasun gutxiagokoa, bihurtu zen azukre-zentral modernoagoetan; ehunka nekazari aritzen ziren lanean (eguneko txandan), gehienetan amerikarrek administratuak, eta ugazaba eta langilearen arteko harremanak (antzina ugari eta malguak, eta elkarrekikotasunean oinarrituak) despertsonalizatu egin ziren.⁷⁰

Garapen guzti hauek, Manuel María de Ynchaustik (1900-1961) bultzatutako Negroseto lehenengotariko azukre zentralaren boomaren garaikideak izan ziren, La Carlota Sugar Central, 1916an Hacienda Esperanza sortua. 1880ko hamarkadaz geroztik, Ynchausti konpainiak (YCO-k), britainiar eta amerikar enpresak nagusi ziren merkataritza bateko (azukre-esportaziokoa, hain zuzen ere) atzeritarra ez zen etxe bakarrak, dirua maileguan ematen zien Negroseto *hacendero*ei.⁷¹ Ynchaustiren oinordekoak famili negoziotan, Manuelek, oraindik adin txikikoa La Carlotaren sorreraren garaian, erronka bereberei aurre egin behar izan zien. Hala ere, Manuel gazteak oso ondo zekien negozioa zer zen eta azukre industria modernoak nola funtzionatzen zuen. YCO korporazio erraldoia zen, haziendak, labrantzak eta destilategi bat ez ezik, pintura, egurgintza, sokagintza eta, are, ontzi-enpresak ere bazeuzkana. La Carlota zentralari buruz hartutako bere lehen neurriak

66 Aguilar (1998), 115 or.

67 Nellist (1931), 185-186 or.

68 Billing (1992), 160-161 or.

69 Normalean, *hacendero* eta errotarien arteko kontratuak bostik hogeita hamar urtera irauten zuten, eta errotariekin kuotaren ehuneko 25tik 50ra jasotzen zuten.

70 McLennan (1980), 102 or.

71 Guztira, zazpi merkataritza etxe zeuden (YCO barne): lau britainiar (Smith-Bell & Co., Ker & Co., WF Stevenson & Co., eta Macleod & Co.), estatubatuar bat (Peele-Hubbell & Co.) eta suitzarra (F. Luchsinger).

ez ziren okerrak izan, garai hartako testuinguru sozioekonomikoa aintzat hartzen bada. 1920an, orduan lanean zebiltzan inguruko bi azukre fabrika bereganatu zituen, Sta. Teresita eta Kanlaon. Horren ondorioz, bi birringailuz eta bederlatzi arrabilekin hasitako fabrikak, 1925. urterako hiru zentral izango zituen eta beste hiru gerraosterako (hauek, jada, Elizalde familiaren jabetzapean), Asiako azukre konplexurik handientzat jo zena bihurturik.⁷²

Dimentsio berri honi Elizalde familia zuzendaritzan sartuz geroztik ekin zion, sarrera hau Manuel de Ynchaustik erraztu edo behintzat ahalbideratu zuelarik, orain norbaitek ahaztu nahi omen duen arren, eta sarriegi ahazten den moduan.⁷³ Izan ere, Manuelen egoera pertsonalak, Europa eta Filipinen artean baitzen, eraman zuen YCOren ondasun batzuk Elizalde familiari saltzera 1933an, baita hainbat negozio Salvador Z. Araneta abokatuaren eskuetan uztera ere, honen aita (Gregorio Araneta) luzaroan bere familiako oso konfiantzako laguna izan baitzen. Honi gehitu behar zaio, YCOk Negros, Palay eta Bicolen zituen lursail zabal batzuk *doan* bertako nekazariei eta Eliza Katolikoari banatu zizkiela, paregabekotzat har daitekeen ekintza, garai hartako *hacendero* eta enpresariak Filipinetan zuten portaera kontuan hartuta. Ekintza honek, behin baino gehiagotan, iruzkin sarkastikoak eta inozotasun salakeriak piztu zituen, baita Manilan bere abokatu eta ahalordeek egindako gehiegikeria eta iruzur batzuk ere. Usteak uste, oso gauza ezberdinak dira, inork ikaragarritzko eskuzabaltasuna izatea, printzipio sendo eta koherenteetan oinarrituta, ekintza horiek absurdoak edo ulergaitzak diruditen arren printzipio berekoak ez direnei, eta inor inozo eta tentel aritzea.

Zentralen eratzea ez zen *ex nihilo*tik sortutako zerbait, baizik eta ohiko bizibide familiarrekin lotura estua zuena. *Muscovado* haziendetan lortutako esperientziaren pilotzeak, orokorrean, abiatu eta bideratu zituen zentralen sorrerak. Honen erakusgarri da Tirso Jr. Lizarragaren (1888-1945) ibilbidea. Iloilon jaioa eta *hacendero*en semea, oso gaztetan Europara bidali zuten, Espainia, Frantzia eta Eskoziara bereziki, heziketa ona har zezan, non segur aski ikasketa komertzialak egin izango zituen. 1907an Filipinetara itzuli zenean, aitaren negozioak gobernatu zituen. Izan ere, hainbat enpresen jabeakidea izan zen, normalean Nafarroan bizi zen Carmelo Lizarragarekin batera; hauen artean, Kabankalan familiak zuen Bearin hazienda zegoen (Zentral bihurtuko zutena), baita azukre findegi bat eta lurrin fabrika bat ere. Lizarraga Hermanos enpresako zuzendaria izan zen denbora luzez, Negros zein Luzonen esportazio eta inportazioez ziharduen sozietatea, Manilan egoitza nagusia eta Iloilon eta beste hiri batzuetan bulegoak zituena. Berain azukre zentralak eman zizkion, neurri handi batean, proiektzioa eta oihartzun handiko karguak, besteak beste, Mount Arayat Sugar Co.-ko lehendakaritza (azukregintza zentrifugoan eta salmentan espezializatutako

72 Manuel María de Ynchaustiri buruz: Larronde (1992). Ikusi ere: Anduaga (2019).

73 La Carlota Sugar Central historiari buruzko kontakizunek—askotan Elizaldetarek beraiek idatzitako edo gutxienez elikatutako eta baimendutako iturrietan oinarrituta—zentralaren sortzaile eta jabe historiko bakartzat jotzen dute Elizalde familia. Ikusi, adibidez, 'The True Story of Elizalde. 85 Years of Pioneering'. *The Tribune* (Manila), 1937, 40–41 or.

enpresa), Kabankalan Sugar Co.-ko presidentea, Filipinetako Azukre Elkartearen fiduziariora eta Merkataritza Ganbarako kidea.⁷⁴

Azukre zentral baten jabetzak ez zekarren beti berekin, *comme allant de soi*, Manilako finantza elite nazionalen iristea eta arrakasta izatea. Argibide bezala, iraultza ostean, teknologia amerikarrez baliatuz, estatubatuar batzuekin batera Juan Aranetak sortutako Ma-ao Sugar Central enpresa aipa daiteke, Negroseko lehen azukre zentral amerikarra izan zena. Juanek eta bere seme Jorge Leónek (Zentralaren zuzendaria izango zena) ondasun ugari eta loria lortu izan arren, sekula ez zuten lortu Manilako jauzia egitea, eta haien inbertsioak Mendebaldeko Bisaietara mugaturik geratu ziren.⁷⁵ Beste belaunaldi bat pasatu behar izan zuen, gerraostekoa, jauzia ikusi arte. Hala, 1948an Jose Yulo, Araneta familiaren kide batekin ezkondu zegoen enpresariak, Canlubang Sugar Estate erosi zion Manilako Vicente Madrigal finantzariari. Negrosen hiru azukre fabrika erosi ondoren, Yuloren koinatu batek eta J. Amado Aranetak (Jorge Aranetaren semea) Manilako etxegintza-merkatuan indartsu sartzea lortu zuten. *Azukre baroientzat*, Manila inbertsio eta aintza aukera zen, azukre zentrala diru-iturria zen bezala.⁷⁶

Azukre negozioen aztarrenak azter daitezkeenez gero, izan ere, euskal jatorriko *hacendero* gehiago (eta goiztarrago) izan zen Negrosen beste lurraldeetan baino, arestiko azukre haziende ez bagara ari. Horrek ez du esan nahi, ordea, bigarrenagoak egon ez zirenik. Ynchausti, Elizalde edota Aranetarrek hartu zuten bidetik segitu zuen, neurri batean behintzat, eta azukre sektoreari dagokionez, Filipinetako itzal handiko beste euskal saga batek, Cebun finkatutako Aboitziz sendikoeak. Hauen patriarkak, Paulino Aboitzek (1851-1912), Lekeitioko Txantron Torre baserriko Bisayaseko Leytera salto egin zuen 1870ko hamarkadan, belaontziko pilotu lanetan jarduteko Gregorio Yrasterza merkatarientzat. Honen alabarekin ezkondu, eta, urte batzuetara, Muertegui eta Aboitz konpainia sortu zuen, itsasontzi-jardueraz gain esportazio merkataritzan espezializatu zena, batik bat abaka, baina kopra eta azukre bera ere.⁷⁷

Ez ziren oraindik azukregintzan, aski hurbil bazeunden ere, 1910eko azukre zentralen olatu erraldoiak harrapatu zituenen. Lehen ere ezagutzen zuten azukre merkataritza, 1901etik honantz, Paulinoren eskutik, baina ez zuten susmatu hazkunde horrek beste sektore ekonomikoetara ekar zitzakeen ondorioak. Olatuak, nolabait, Paulinoren semea hartu zuen, Ramon Aboitz (1887-1974), zeren eta bere aitaren enpresako agintea hartzeaz gain 1912an, 350 hektareako azukre plantazinoa erosi (Boroc Hazienda, 1916an), eta Leyteko lehen azukre lantegia sortu batzuen (Ormoc-en, 1919an); eta, hori guzti gutxi ez eta Robert Renton Hind azukre teknologo amerikarren laguntzaz, Ormoc Sugar Company sortu zuen

74 Nellist (1931), 185-186 or.; Anduaga (2019).

75 López-Gonzaga (1994), 176-185 or.; Larkin (1993), 168 or.

76 McCoy (2009), 496-499 or.

77 Aboitztarren istoria standarra Filipinetan Mojares (1998) da. Ikusi ere: *The Story of Aboitz & Company, Inc. and the Men behind it*. Cebu City: Aboitz & Co., 1973.

1929an. Era eta modu berriak, bereziki azukregintzan, berekin zekarten zaharragoak baztertu eta inguruko sektoreak elikatzen hasia.⁷⁸

Honaino iritsirik, eta atal hau amaitu aurretik, azukre industriari euskal presentziaren zenbat jarraibide azpimarra daiteke, gutxienez gaingiroki. Tartekoa garenez, aztertutako herritartasun gaia (kasu askotan, *euskal jatorrikoa* hobe, *euskal* baino) alde batera utzita, oso nahastua izan zena bestalde (kreoleak, mestizoak, penintsularrak, etab.), begi bistakoa denez, harrigarria da, batez ere azukre zentral handien jabeen artean, ikus daitekeen antzekotasuna hartutako negozio-estrategietan, joera dibergente baina baterakorragoak erakutsiz. Ezin dira estrategia guztiak berdindu, are gutxiago parekatu, baina maila batean, herrialdeko elite ekonomikoarenean, hartutako estrategia izan zen azukre industriaren parte hartzea beste negozio batzuekin osatzea, hala nola etxegintza-inbertsioak, aseguru-etxeak, itsas-konpainiak, kontsumo-ondasun horniduraren industria eta esportazio merkataritza. Azukre industria, hauetako askorentzat behintzat, negozio-kate luze bateko lotura bat besterik ez zen.

Azukregintzan euskal presentzia bereizi zuen barrutiren bat baizik ez dut aipatuko, barkaezinezko hutsuneak lagatzeko arriskuan banaiz ere. Hitzaren zentzu oso zabalean, *euskal kolonia* deitu litekeena, XX. mendeko lehen hamarkadetan XIX.eko bukaeran baino joriago izan zena, Negrosen, batez ere, eta neurri txikiago batean, Pampangara eta Cebuko eskualdeetan, bildu zen.⁷⁹ Bigarren euskal kolonia esanguratsuen Bicolandia izan bazen ere, hor kopra eta abaka laborantza izan zen langintza nagusia, eta ez azukregintza. Oro har, haziendak herri txikiak, bata bestearengatik aldentutakoak eta ia bakartutakoak ziren bitartean, zentralak herrigune garrantzitsuetan zeuden kokatuta. Euskal emigranteei hainbesteko ospea eman zien izaera ekintzailearekin batera, ugazabak haziendaren kudeaketa administratzaile bat eta bi edo hiru arduradunen esku uztearen gogo hori mantendu zen, ia ohituraz euskaldunak zirenak, jabeak euskaldunak ziren haziendetan behintzat. Kobre eta abaka haziendakoak plantazio guneetan bizi ziren bitartean, azukre haziendetako jabe horiek, salbuespenak salbuespen, atzerrian edo Filipinetako hiriburuetan bizi ohi ziren.

Hazienden kudeaketa bermatzeko premia euskal kolonien garapenean aurreratu zena ondorengo Tauletan ikus daiteke. XX. mendearen erdi inguruko egoera isla dezaken argazkia da. Garapenak izan zuen zabalera harrigarria dirudi, hazienda apal eta ezezagunetik goi mailako azukre zentraleraino iritsi baitzen. Tauletan ez da ageri, euskal jatorriko langileek erantzukizun karguak izan zituzten hazienda eta azukre fabriken zerrenda luzea bezain

78 'Don Ramon Aboitiz: portrait of a gentleman as a businessman'. *Philippines Herald* 1970ko Azaroaren 14, 2-7 or.; Mojares (1998).

79 XX. mendearen bigarren hamarkadako euskal presentzia Filipinetan zehaztasunez zerrendatu zuen Ricardo Larrabeititik Biarritzen ospatutako VII. Eusko Ikaskuntzaren Biltzarrean 1948an, aurkeztutako lan honekin: 'Coordonnées des Basques résidant dans le district de Bicolandia, dans l'île de Luzon, de Panay, de Mindanao, de Negros (provinces de Negros occidental et de Negros oriental) et de Cebu'. Larrabeiti (1948; berrargitaratua 2003an).

bukaezina, euskal kolonia esanguratsuak batu zituztenak baizik. Hala ere, ez da axola gutxiago duenik azukre esportazio osoan izan zuten pisua. Horrela, esate baterako, 1939-1940 urte fiskalari dagokionez, euskal jatorriko jabetzako azukre zentralek AEB-rako azukre kuotaren ehuneko 21,5a esportatu zuten: Elizalde (9,94), Ma-ao (4,23), Victorias Milling Co. (4,21), Lizarraga (2,05), San Isidro (0,97) eta Ayala (0,13), nahiz eta hauetako batzuetan euskal partaidetza gutxiengoa izan.⁸⁰

Taula 1. Azukre zentralak Filipinetan (euskal jatorrikoak edota euskaldunetz administratutakoak edo gobernatutakoak), XX. mendearen erdi inguruan

IZENA	JABEA	LEKUA	EUSKAL EGOILIARRAK	JATORRIA
ARAYAT Mt.	Lizarraga Anaiak	Arayat, Pampanga		
BAIS	Compañía General de Tabacos	Bais, Negros Oriental	Zabala familia Nati Garcia Goicoechea	Lekeitio Lekeitio
BEARIN	Lizarraga Anaiak	Kabankalan, Negros Occ.	Carlos Ormarenberia	
CALATAGAN (Central Carmen)	Ayala (Zobels)	Calatagan, Batangas		
LA CARLOTA	Elizalde & Co.	La Carlota, Negros Occ.	Faustino Zabaljauregui	Ea
MA-AO	Araneta <i>et al.</i>	Bago, Negros Occ.		
ORMOC	Ramon Aboitiz <i>et al.</i> *	Ormoc, Leyte Visayas		
PALMA	Salvador Serra (Mallorca)	Talubangi, Negros Occ.	Gurrucharri (erregentea) Federico Soloaga Garmendia Carmelo Imaz	Durango Ea
PILAR	Elizalde & Co.	Pilar-Capiz, Negros Occ.		
SAN ISIDRO	Vidaurreza-ga eta Mota anaiak	Kabankalan, Negros Occ.	Jesus Bilbao Donato Inchausti Vidaurrezaga eta Irene de Aruza Ponciano Arteta Jesus Larrabeiti Vidaurrezaga Juan Aburto Vidaurrezaga Juan Sarasola Rementeria Jose Zubiri Beruezo Jose M ^a Zubiri Beruezo	Barrika Mungia Galdakao Derio Derio Elantxobe Tafalla Tafalla
SARA-AJUY	Elizalde & Co.	Ajuy, Iloilo		
VICTORIAS MILLING	Miguel Ossorio, Claudio Ruiz de Luzuriaga, <i>et al.</i>	Victorias City, Negros Occ.	Eduardo Ruiz de Luzuriaga (superintendente eta zuzendaria)	

Iturria: Larrabeiti, (1948, Biarritz ; 2003, Donostia), 539-545 or.

(*) Ramon Aboitiz Ormoc Sugar Companyren jabea izan zen 1929tik 1935ra, hau da, zentrala sortu zenetik Gil Montilla familiari saldu zion arte.

80 Oabel (2011), 86 or.; Nagano (1988), 174-175 or.

Taula 2. Euskal (edo euskal jatorriko) jabetza zuten azukre haziendak Filipinetan, XX. mendearen erdi inguruan

IZENA	JABEA	LEKUA	EUSKAL EGOILIARRAK	JATORRIA
BASKONIA	Marino Gamboa	San Carlos, Negros Occ.	Damaso Barrena Vicandi eta María de Altube Félix de Arteabarro Aguirre	Amorebieta Bedia
CALATIO		Irosin, Sorsogon	Jesus Anduiza eta Quintana Cano	Lekeitio
CARMEN	Urquijo Ortiz anaiak (Santiago eta Severino) (Amorebieta)	La Carlota, Negros Occ.	Eugenio Echano-Jáuregui Barrena (Administratzailea) Gregorio Anchustegui	Amorebieta Lekeitio
EUZKADI		Pilar, Capiz	Francisco de Uriondo Juan José Idirin y Zubero	Zeberio Zeberio
EUZKARA	Gamboa anaiak		Esteban de Arteabarro Aguirre eta M. Zabaleta Pablo Gamboa Zamarripa	Bedia Lekeitio Sondika
FE	Uriarte anaiak (Bilbao)	La Carlota, Negros Occ.	Juan Uriarte Zamacona eta emaztea AureBarruetabeña Higinio Uriarte Zamacona Julian Uriarte Zamacona Juan Salaverria	Villaro
MALBUG		Juban, Sorsogon	Teodora Cano eta Maria Cano	Lekeitio
MANUCAO	Aldecoa, Isasi eta Zuloaga	De Isabela, Negros Occ.	Jesus Isasi Larrabide eta M. Aldecoa Valentín Bilbao Elexpe Claudio Zuloaga Zabala	Zeberio Zeberio Zeberio
NAVARRA	Oquiñena	Cebu		
SAN ANTONIO	Aureliano Zuloaga (Amorebieta)		Tomás de Sagastasola eta Petra Azorloza Dionisio Azorloza Lucío Flamarique	Amorebieta Amorebieta Carrascal
SAN CRISTOBAL		Escalante, Negros Occ.	Vicente Ormarenteria Primitivo Esquer	Ateaga Olazagutia
SAN CRISTOBAL	Hermógenes Inunciaga y Mendieta	Rabankalan, Negros Occ.		
SAN JOSE	Celestino Mendiola eta Hermógenes Inunciaga	Bais, Negros Oriental	Hermogenes Enunciaga Andrés Sangroniz Landaida Pedro Bengoechea	Galdakao Algorta
SAN LORENZO			Gregorio Urquiaga	Lekeitio
REFUGIO	Menchaca anaiak (Andrés, Domingo, Isaias, Antonio) Roberto LLantada	Calatrava, San Carlos, Negros Occ	Roberto Llantada (Administratzaile eta manager) Ricardo Llantada	Algorta Algorta

Iturria: Larrabeiti, (1948, Biarritz ; 2003, Donostia), 539-545 or.; Inchausti (1948, Baiona; 1980), 590-592 or.

Hortik dator orduko azukre zentral modernoan izate kapitalista eta dinamista, estatismo gabea: kapital, eskulan, baliabide eta informazio mugimendu eta fluxu espazioak ziren, azken helburu bezala maila guztietan mozkinen optimizazioa zutela, azukregintza arloan eta

azukregintzan bide batez. Handinahikerietan erortzeko arriskurik gabe, beste kolektibitateek bezala, euskal koloniak hazienda tradizionaletik espazio ekonomikorako bilakaera ongi irudikatzen duela esan daiteke. Jauziaren larriaz ohartu ziren eta beronek zekartzan eskakizunak onartu zituzten.

Hein batean, hortik dator, halaber, azukregintzan ugazaba eta jernalarien arteko harremanak faktore erabakigarri izateari utzi izana; hazienda tradizionalak definitzen zituen ezaugarria zen, ekoizpen kapitalista hutseko lekua izatetik aldentzen zuena.⁸¹ Nagusiordeak kontratatutako soldatapeko eguneko jernalaria, ugazabarekin inolako harremanik ez zuena, gero eta ugariagoa zen azukre industria modernoan.⁸² Egoera berri hau prozesu produktiboko alderdi desberdinetan behar zen mekanizazioarekin (ez naiz automatizazioaz ari) lot-loturik zegoen; egoera honek oraindik behar adina aztertu ez den beste modu batez ikusarazten ditu Filipinetako euskal kolonia modernoak, lehen ematen ez ziren beste ezaugarri eta berezitasun batzuekin. Kolonia berriak, bada, bere horretan hartu beharko dira, iraganeko paradigmek itsu ez gaitzaten.

6. Teknologia berrikuntzak enpresa-espazio berrirako

Mekanizazioa eta industrializazioa ez ziren izan hazienda tradizionala enpresa-espazio izatera bultzatu zuten faktore bakarrak. Azukre-kanabera bariedade berrien lantzeak lagundu zuen ere. Ziurrenik, beste faktore batzuk ere izan ziren. Jarraian azalduko den moduan, euskal jatorriko azukre teknologoek bariedade berriak lantzerakoan berritzaileak izateko joera izan zuten.

Berrikuntzarekiko erresistentziaren adibide ona da Filipinetako azukre industria. Bertako azukre-kanaberek erresistentzia honen alde nahiz kontra eragin zuten. Berezitasun nabariak, albokoekiko izate bakanak eta “natiboak” (Javan eta Taiwanen ezarritako laborategiko bariedade berriekiko, batez ere), baita bere bideragarritasun komertzialak ere, tradizioaren iraupenaren alde bulkatu zuten. Filipinetan, ia 1920ko hamarkada arte ez zen egon bertan hazitako bariedadeen zantzurik.⁸³ Negros uhartean *Negros purple* izeneko kanabera natiboa (*Saccharum officinarum*-en bariedade bat) lantzen zen bitartean, Luzonen *Luzon white* izeneko erabiltzen zen (*purple*-en bariedade berekoa).⁸⁴ Biak bertakoak bezain antzinakoak ziren. Bariedade hauen errendimendu onak kanabera berrien hazkuntza era ikerkuntzarekiko interesa gutxitu zuen. Bitik zortzi urtera iraungo zuten kanabera kimuak lantzeko ohiturak—

81 Kerlvlieten arabera (1977), 250-251 or., XIX. mendeko harreman tradizionalak azukre haziendetan oro har pertsonalak ziren eta elkarrekiko errespetuan oinarritutakoak.

82 Zentralen tamaina handiak harreman pertsonalen kontra eragin zuen. Adibidez, Filipinetan sortutako azukre fabrika modernoetariko batek, modernoena ez bazen bere garaian, San Jose Haziendak, honako egitura soziala zuen lankidegoan 1912an: 80 europar eta amerikar inguru, 200 japoniar eta 2000 langile filipinar (azken hauetariko ehunen bat senide haziendan bertan bizi zirela). Schult (1991), 463-464 or.

83 Java, Taiwan eta Filipinetako azukre industrien bariedade berrikuntza joeren konparaketarako, ikusi: Galloway (2005), 5-18 or.

84 Aala (1987), 365 or.; Mangelsdorf (1930), 403 or.

sendo errotutako ohitura, esan beharra dago—oztopatu zuen, zalantzarik gabe, barietate berrien bilaketa.⁸⁵ Bestalde, eta hau axola handikoa izan zen, batez ere maila komertzialean, Filipinetako azukre natibo ez zentrifugatu honek merkatu garrantzitsuak aurkitu zituen atzerrian, hasiera batean Estatu Batuetan eta Britainia Handian, eta hauek beste herrialdeetako azukre zentraletara jo zutenean, Txina eta Japonia erosteko prest agertu ziren.⁸⁶ Bertako azukre-kanaberak kontra eragin zuen, berriz, industriari ekoizpen handiak zailtzen zion aldetik, lehendabizi, eta barietate berrikuntza ezak errendimendua eragotzi ziolako gero. Gai honetan ezin aldera zitekeen bere inguruko beste azukre-produkzio herrialdeekin, Java eta Taiwanekin adibidez, hauek XIX. mende bukaeratik izan baitzituzten bestelako barietate ereduak, ikerkuntza eta esperimentazio estazioetan garatuak, azukreak jasandako gaixotasunak irabazten lagun ziezaieketenak.⁸⁷

Egoera honek, bistan da, bazuen loturarik Filipinetako azukre industria hektareako errendimendu baxuenekoa izatearekin, munduko azukre-produkzio herrialde nagusiekin alderatzerakoan.⁸⁸ Garbi dago, errendimendu eskasaz gainera, orduko industria azpiegitura eta antolaketa ez zirela aproposenak kanabera barietateen esperimentazio edo ikerketarako, azukre zentralak eta ikerkuntza laborategiak oraindik garatu gabe zeundelako besterik ez bada ere.

1920ko hamarkadan berrikuntza nahia baizik ez zena, hurrengo hamarkadetan, gero eta ageriago, hainbat eta beharrezkoago bihurtu zen. Kanabera barietateen ikerkuntzan daukagun ahaleginaren froga zuzena Justo Arrastia Salgado (1895-?) da, bera baita 1930ko hamarkadako Filipinetako *hacendero* esperimentalistarenarikoa. Nafarroako Lizarratik hara joandako emigrante baten semea, Ingeniaritza Zibilaren zientzian lizentziatu zen, AEB-ko Cornell Unibertsitatera joan aurretik, ikasketak jarraitzera. Arrastiaren ibilbide profesionala, beste ofizioetatik azukregintzara etorritako hainbat eta hainbat landatzaileen jarreraren erakusgarri da.⁸⁹ Nazioarteko azukre merkatuarekiko gero eta menpekotasun handiagoaz kezkatuta, Pampanga eta Negroseko nekazari askok iraganean azukregintzarako izandako lursailak arroza lantzeko erabili zituzten. Arrastiak, ordea, alderantziko bidea egin zuen, hiritik nekazaritzara. Bere familiak nahiko nekazaritza ondasun bazuen ere, bere enpresa sortu nahi izan zuen palay laborantzarako aurreko jabeek (fraideek) erabilitako lursail handi bat alokatuz. Horretarako, Pampanga Sugar Mills Planters Association delako erakundeaz baliatu zen, hango kide eginez eta lehendakaria izatera iritsi arte.⁹⁰

85 Walker (1910), 85 or.

86 Aguilar (1998), 121-123 or.

87 1920ko hamarkadan Negroseko La Carlota Experimental Station-en egindako entsegu batzuetan frogatu zen ikerketarako inportatu ziren hiru barietateak (hain zuzen ere, *Barbados 147*, *Hawaii 109* eta *POJ 247*) *Negros Purple* baino hobek zirela. Galloway (2005), 16-17 or.

88 Larkin (1993), 54-55 or.

89 'Progressive Planters: Justo Arrastia'. *Sugar News*, 1933, 14 zkia., 341-343 or.; Larkin (1993), 103-104 or.; Anduaga (2019).

90 1927an Arrastiaren azukre kanabera lursailaren tamaina 337 hektareakoa zen.

Arrastiaren ikuspegia, hasiera-hasieratik, kanabera gozoaren jatorrizko barietateak eta esperimendazio teknikoaren arteko lotura ezartzera zuzendu zen. Asmoa, emankorrak ez ziren azukre kanaberaren barietate natiboetan oinarritutako ekoizpena hobetzea zen, metodologia zientifikoaz baliatuz. Helburu horrekin, kalitate handiko barietateen laborantza ezarri zuen, antzinako barietate natiboen ordeztu. Jarduera hau, heldutasun garai desberdinetan kanabera barietate askokoak erabiltzean zetzan, ehoketa goiztiarra nahiz berantiarrendako egokia izanik. Ereintza eta uzta sistematikoak ekoizpen gehikuntza zekartzan. Ekintza eta ekimen guzti hauek zirela eta, 1933an *Sugar News* aldizkariko editoreak Arrastia “nekazari aurrerakoitzat” definitu zuen.⁹¹

Landa-esperimentu konfigurazioaren aldekoa da, ongarrri egokiak aplikatzeko eta kanabera barietate aproposak landatzeko baliabide ekonomiko gisa. Lurra lantzeko, nekazaritzako tresna modernoak erabiltzen ditu, eta azukre kanabera laborantzan metodo zientifikoak aplikatzen ditu.

Ez guke bestalde atzendu behar kanabera barietateena ez zela izan euskal jatorriko teknologoen berrikuntzak garatu zituzten arlo bakarra. “Azukre teknologia” ez zen beti, ezta maizenik ere, kanabera barietate inguruan garatutako teknologia, nahiz eta antzina “azukre iraultza” deitu ohi zutena bigarrenengoarekin lotura zuzena izan zuen, hots, kanabera barietate iraultzarekin. Hor daude, esate baterako, lurzorua azterketetan egindako aurrerapenak, edota azukre kanabera zukuaren garbiketan emandako berrikuntzak, azukre teknologiaren beste erakusgarri.

Arlo hauetan, Teófilo Ancheta (1914-2001) izango da abiapuntua, bera izan baitzen bizi osoan azukre teknologia berrietan aditua. Pangasinanen jaioa, azukre teknologia ikasi zuen Filipinetako Unibertsitateak Los Bañosen zuten Nekazaritza Eskolan. 1940an zientzietako lizentziatura lortu zuen azukre ekoizpenarengan hainbat kontzentrazio kimikok zuten eraginari buruzko tesiarekin.⁹² Hasieratik, destilategien kontrol prozesua eta ikuskapenerako ahalakia eta agudezia erakutsi zuen, baina garai hartan ia inoiz baino gehiago agertzen zen azukre ekoizpen teknologia bizitu eta berritu-nahia ere. Destilategiez gain, Filipinetako Azukre Institutuan ere aritu zen, Batangaseko Don Pedro de Nasugbu Azukre Zentraleko Lurzoru Laborategian, agronomo gisa. Tokiko erroleak, lurren analisisiez baliatuz, azukre kanabera lurzorua ongarrizko premiari buruz aholkatu zituen.⁹³

Anchetaren garai oparoena gertatu zen Pangasinan Manaoageko Hind Sugar Company-ko kimikari nagusiko kargura igo zutenean 1950an, eta Negroseko Silay-Saraviako *hacendero*en elkarteko kimikari laguntzaile izendatu zutenean, 1954an.⁹⁴ Ordukoak dira,

91 ‘Progressive Planters: Justo Arrastia’. *Sugar News*, 1933, 14 zkia., 341-343 or.

92 Tesiaren izenburua, *The effect of different concentrations of zinc chloride and sugar on the production of citric and acid from raw cane sugar by Aspergillus Niger, Strain 14D36*. National Research Council-en irakurria izan zen 1940an.

93 Anduaga (2019).

94 ‘Teófilo R. Ancheta’. *Sugar News*, 1957, 33 zkia., 268-269, 279 eta 309 or.

esate baterako, azukre kanabera zukua garbitzeko “super-prozesua” (“iraultzailea”, *Sugar News* aldizkariaren arabera),⁹⁵ 1951an—eta aurrengo aldiz Filipinetan—Elguanite azukre zentrolean sartu zena. Hor dago, beste bat aipatu behar bada, “A study of the possibilities of high test molasses production” izeneko artikulua, *Sugar News*-en argitaratu zuena 1956an. Lan honetan, Anchetak azukre soberakinari zer irtenbide errentagarri eman zekioken aztertu zuen. Entsegu handiko melaza ekoizpenean aurkitu zuen irtenbidea; soluzio horrek, hala ere, melaza teknologiaren formulazio berria behar zuen, bai izan zitekeen etekinei eta bai entseguzko melaza ekoizpenean sortu zitzaketen mugei aurre egiteko.⁹⁶

Azukregintza, ekoizpen eta destilazio teknikak ahotan hartuz gero, nekez utzi daiteke goramen berezirik gabe, historia honetan, Eduardo Ruiz de Luzuriagaren (1907-??) izena, Luzuriaga sagako beste kide batzuk bezala arlo horretako hainbeste lan utzi zizkiguna. Negros iraultzako gobernuan Ekonomia idazkari izandakoaren semea (Eusebio), Dumagueteko Silliman Institutuan egin zituen lizentziatura ikasketak. Bere lizentziatura tesiarekin (“Cane Sugar Manufacture”) aurki erakutsi zuen bere jaidura eta jakingura, familian horri buruz zalantza txikiarik ere balego.⁹⁷ Palma Azukre Zentralaren hazienda bateko plantazio arduraduna, bere lehen lanpostua besterik ez zen izan, handik eta hemendikako eskaerak izango zituen zerrenda luze bateko lehena. Horren ondorengoak dira, esate baterako, Binalbagan Estate konpainian kimikari laguntzailearen postua (1931tik 1933ra), Cebu Sugar Co.-ko distilategiaren superintendentea eta kimikari burua (1933tik 1940ra), Bais Azukre Zentraleko manufakturako zuzendaria (1940tik 1952ra), edota, une gorenaren isla, bere familiako enpresan—Victorias Milling konpainian—superintendentetik zuzendari izan arte jorratutako bidea.⁹⁸

Azukre teknologia landua izan zen aspaldidanik, Filipinetan oso landua ez izan arren, zenbait adituk eta historialariek aitortzen zuten. Ez da esan, haatik, azukre teknologiaren eremu zabala horrenbestez, alor eta soro, zatika eta desberdintsu aitzurtua zegoenik. Azukre teknologiaren bi alderdi izan dira, batik bat, Luzuriagak biziki gogoko izan zituenak, besteen gaitzerako hainbat aldiz: destilazioa (eta honen barrutian, alkoholgintza izan da beti nagusi) eta, horri loturik, irazte eta ateratze kimikoak. 1950an jada, Bais Zentrolean ezarritako prozesu elektromagnetikoaz baliatuz, kanabera zukuaren arazketa aztertu zuen.⁹⁹ 1954an, hondakin melaza alkohola ekoizteko material nagusi gisa erabiltzen zuen destilategi

95 ‘Sugar Central News: Hind Sugar Co.’. *Sugar News*, 1953, 29 zkia., 118 or.

96 Ancheta (1956), 591-599 or.

97 Ricardo L. Jr. Gallaga, *The R. de Luzuriaga Survival Kit. Part Two. The First Three R. de Luzuriaga Generations & Their Ancestral Homes*. Bacolod: UPRESS USLS, [n.d.]

98 Bere ibilbide profesionalari buruz, ikusi: ‘De Luzuriaga, Eduardo R.’ In: *The Outstanding Leaders of the Philippines, 1980*. Metro Manila: Asia Research Systems, Inc., 1980, 165 or.; ‘Luzuriaga, Eduardo Ruiz de’. *Sugar News*, 1954, 30 zkia., 506-507 or.; ‘Eduardo R. de Luzuriaga’. *Sugar News*, 1970, 46 zkia., 502-504 or.

99 Ruiz de Luzuriaga (1950), 384-386 or.

modernoaren funtzionamendua deskribatu zuen.¹⁰⁰ Horretaz gain, azukregintza teknika eta prozesuen azken aurrerapenak ere maiz azaldu zituen; horren lekuko dira Victorias Milling konpainiako kondentsadore elektriko eta irazte teknikei buruzko hainbat idazlan.¹⁰¹ Idazki hauek Luzuriagaren berrikuntza senaren ondorio zuzena ziren, ez inolako salbuespenak.¹⁰²

7. Ondorioak

Utz iezadazue hainbat zuribide eta gogoetekin amaitzen. Lan honek ez du izan Filipinetako azukre industriaren garapenean euskal ekarpena aztertzeke helbururik; hori lursail handiegia da aitzurkada batzuentzako. Hala ere, hemen planteatzen dena da zenbait euskal (jatorriko) ekarpenek azukre hazienden bilakaeran eragina izan zutela. Izan ere, azukre haziendaren kontzepzio dinamiko bat definitu badaiteke, segur aski horrek gai geografikoak—ekonomikoak eta teknologikoak bezainbeste—kontuan hartu beharko lituzke. *Hazienda* hitza bi zentzuetan erabili dut.

Lehenik eta behin, azukre industriaren ekonomia eta teknologian gertatutako baldintza aldakorrek azukre *hacenderoen* pertzepzio aldakorrak islatzen eta moldeatzen dituzte, euskaldunen artean zein oro har. Aztertutako kasuen arabera, esan daiteke azukre hazienda, euskal jatorriko ekintzaileentzat, hastapenetan bederen, giza harremanak, balioak eta prozesu produktiboak batzen zituen leku fisiko, finko eta integrala zela; atzerriko teknologiaz ekipatzen ahalegindu zirela (adibidez, burdin errotak, ekonomika labeak eta zentrifugazio teknikak ezarriz), ugazaba-langile harreman eratsuak bultzatzen saiatu zirela (salbuespenak salbuespen, Amenabar eta Amechazurraren kasuetan bezala) eta familiaren batasunari eta leialtasunari garrantzia eman ziotela (kudeaketaren ardura euskaldunengan jarriz, adibidez). Euskal merkatarari eta esportatzaileek, baliabide eta kapital mailegu-emaeleek, azukregintzari buruz idatziriko txosten kolonialek, guztiek eragin zuzena izan zuten azukre hazienden jardueretan. Faktore hauek, gero eta gehiago, haziendaren izaera eta osaera moldeatuko zuten, bai harreman-alderdian eta bai produkzio-prozesu fase desberdinetan.

“Azukre hazienda” enpresa-espazioa ere bada, ikuspegi geografikotik aztertuz gero. Zalantzarik gabe, azukregintzan eta honen merkataritzan, baziren etekin eta baliabideen optimizazioarekin erlazonaturiko interes ekonomikoak. XX. mendearen bigarren hamarkadatik aurrera, azukre haziendak, geroz eta nabarmenago, kapital, eskulan, baliabide eta informazioaren fluxu-gune bilakatu ziren. Deigarria dirudiena da, hazienda fisikotik enpresa-espaziorako bilakaera horretan, hainbeste euskal jatorriko ekintzaileek izan zuten eragina. La Carlota Sugar Central fabrika modernoaren sorrerak 1916an, Ynchaustitarren eskutik, bilakaera horren abiapuntua markatu zuen euskal koloniarrentzat.

100 Ruiz de Luzuriaga (1954), 8-12 or.

101 Anduaga (2019).

102 Eduardo Ruiz de Luzuriaga patente baten egilekidea ere izan zen, Filipinetako Patente Bulegoak 1go zenbakiarekin saritu zuena, izenburu hau zuelarik: ‘Process of extracting vegetable oil from fresh coconut meat and the like’. U.S. Patent Office, Serial no. 114,784.

Hau izan zen, 1940rako AEB-ko azukre kuotaren ehuneko 21,5ko esportazioak bilduko zituen mugimendu baten hasiera. Ondoren etorriko ziren kasu argigarri gehiago, Manuel Elizalderenak bezalakoak, Elizaldetarren patriarkaren biloba, 1960ko hamarkadan bakarrik 30 artikulua baino gehiago argitaratu zituen *Sugar News* aldizkarian, azukre industriaren erronkak zein arriskuak aztertuz.¹⁰³ Industria horren garapen teknologiko eta ekonomikoan nabarmendutako euskal ekarrien etsenplu gehiago deskubritzeke daude oraindik.

Lan honetan proposatutako “azukre haziendaren” kontzepzio dinamikoak historia ekonomiko kolonialaren ikuspegi berri bat ematen du. Hastapenetan, harremanak ekoizpenarekin uztartutako leku finkoa zen hazienda; geroago, fluxuak eta mugimenduak etekinarekin uztartutako enpresa-espazioa izango zen. Beraz, produkzio-zentro hutsa proiektatzen duen gune estatiko baten ideia ez da egokia. Horren orde, “hazienda aldakorra” izan zen—lektik espazio bihurtuko zena, etekinak optimizatuz eta balore ekonomikoak maximizatuz. Atzera begiratuz gero, euskal jatorriko *hacendero*en egokitzapen gaitasun hori—atzerriko teknologiak ezartzeko, hazienda barruan leialtasuna mantentzeko lehiakortasuna ahaztu gabe, eta inbertsioak eta negozioak dibertsifikatzeko azukregintzatik haratago—izan zen zehazki nagusitu zena.

Historialariek sarri esan dutenez, Filipinetako euskal ekarpenaren gai mamitsua, argitzetik urrun dela, ez da oraindik merezi lukeen zuzentasunez eta egokitasunez azaldu. Asmo horretan barrena, ikerlan hau urrats eragilea izan dadin nahi nuke.

ESKER ONAK

Esker onak helarazi nahi dizkiet Ateneo de Manilako Unibertsitateko lankideei eta lagunei, eta Filipinetako beste Unibertsitateko liburutegi eta artxiboko langileei, batez ere Manilako Santo Tomaseko Miguel de Benavides liburutegikoei, Bacolod-eko La Salle Unibertsitatean lagundu zidatenei, eta Cebuko San Carlos eta Visayas Unibertsitateko lankideei ere, emandako informazioarengatik eta egin zidaten abegi onagatik. Proba zuzenketetan laguntza handia eskaini didatenei ere, Ibai Iztueta eta Lurralde aldizkariko editore eta maketatzailari.

Aitor Anduaga

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

AALA, F.T., 1987. Historical Background of Sugarcane Breeding Improvement in the Philippines. In: *34th Annual Convention, Philippine Sugar Technologists Association*, pp. 365-382.

ALDECOA-RODRÍGUEZ, C., 1983. *Negros Oriental and the Philippine Revolution*. Dumaguete City: Provincial Government of Negros Oriental.

103 *Life and career of Don Manuel Elizalde*. Manila, 1968; Nunez (1975), 244-247 or.; Anduaga (2019).

AGUILAR, F.V. Jr., 1994. Beyond Inevitability: The Opening of Philippine Provincial Ports in 1855. *Journal of Southeast Asian Studies*, vol. 25, no. 1, pp. 70-90.

AGUILAR, F.V. Jr., 1998. *Clash of Spirits. The History of Power and Sugar Planter Hegemony on a Visayan Island*. Honolulu: University of Hawaii Press.

AGUILAR, F.V. Jr., 2000. The Republic of Negros. *Philippine Studies*, vol. 48, no. 1, pp. 26-52.

ÁLVAREZ GILA, O., ed., 2010. *Organización, identidad e imagen de las colectividades vascas de la emigración (siglos XVI-XXI)*. Bilbao: Universidad del País Vasco.

ANCHETA, T.R., 1956. A Study of the Possibilities of High Test Molasses Production. *Sugar News*, vol. 32, pp. 591-599.

ANDUAGA, A., 2019. *The Lives, Ideas, and Works of Basques in the Philippines*. Manila: National Historical Commission of the Philippines, 4 vols.

Anuario del comercio, de la industria, de la magistratura y de la administración de España, sus colonias, Cuba, Puerto-Rico y Filipinas, estados hispano-americanos y Portugal. Madrid: Bailly-Bailliere e Hijos, 1908, vol. 4.

ARTIGAS, M., 1917. *Galería de Filipinos ilustres*. Manila: Imp. Casa Editora Renacimiento.

BILBAO, J., 1979. *Basque Emigration Studies. Working Papers 1. Philippine Islands (1830-1910)*. Reno: Basque Studies Program, University of Nevada, argitaratu gabeko ikerlana.

BILLIG, M.S., 1992. The Rationality of Growing Sugar in Negros. *Philippine Studies*, vol. 40, no 2, pp. 153-182.

BILLIG, M.S., 2003. *Barons, Brokers, and Buyers: The Institutions and Cultures of Philippine Sugar*. Honolulu: University of Hawai'i Press.

BOSMA, U., J. GIUSTI-CORDERO, G.R. KNIGHT, eds., 2007. *Sugarlandia Revisited: Sugar and Colonialism in Asia and the Americas, 1800 to 1940*. New York: Berghahn.

BUZETA, M., 1850. *Diccionario geográfico, estadístico, histórico de las islas Filipinas*. Madrid: Imprenta de D. José C. de la Peña, vol. 1.

Civil Affairs Handbook: The Philippines. Section 7: Agriculture. Washington:

United States Government Printing Office, 1945.

CULLINANE, M., 2003. *Ilustrado Politics: Filipino Elite Responses to American Rule, 1898-1907*. Quezon City: Ateneo de Manila University Press.

DE BORJA, M.R., 2005. *Basques in the Philippines*. Nevada: University of Nevada Press.

DE LA TORRE CASAPONSA, R., 2015. *La Academia Especial de Sargentos de Zamora (1885-1890). Una oportunidad perdida*. Tremp, Lleida: [s.n.].

- DEERR, N., 1949. *The History of Sugar. Vol. I and II*. London: Chapman and Hall, Ltd.
- DELMAS, J.E., 1970. *Biografía universal de claros varones de Vizcaya*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- DIAMONON, V.D., 1920. *The Development of Self-Government in the Philippine Islands*. Iowa: University of Iowa.
- DÍAZ-TRECHUELO, M.L., 1965. *La Real Compañía de Filipinas*. Sevilla: Publicaciones de la Escuela de Estudios Hispano-Americanos de Sevilla.
- ECHAUZ PINTADO, R., 1894. *Apuntes de la Isla de Negros*. Manila: Tipo-litografía de Chofre y Comp.
- FOREMAN, J., 1980. *The Philippine Islands*. Manila: Filipiniana Book Guild.
- FRADERA, J.M., 1999. Opio y negocio, o las desventuras de un español en China. In: J.M. FRADERA ed., *Gobernar Colonias*, Barcelona, Península, pp. 129-152.
- GALLAGA, R.L. Jr., [n.d.]. *The R. de Luzuriaga Survival Kit. Part Two. The First Three R. de Luzuriaga Generations & Their Ancestral Homes*. Bacolod: UPRESS USLS.
- GALLOWAY, J.H., 2005. The Modernization Of Sugar Production in Southeast Asia, 1880-1940. *The Geographical Review*, vol. 95, no 1, pp. 1-23.
- GALANG, Z.M. ed., 1950 *Encyclopedia of the Philippines*. Manila: Exequiel Floro.
- GENOVAE ITURBE, J., 1896. *El Archipiélago Filipino: Ligeros apuntes sobre su colonización*. Madrid. Ingelesezo itzulpena, *The Philippine Archipelago (Brief Notes on the Formation of Agricultural Colonies in the Island of Negros)*. Manila: University of St. La Salle, 1988, itzultzailea Sylvia Montenegro-Moreno.
- JAGOR, F., 1875. *Travels in the Philippines*. London: Chapman and Hall.
- JOAQUIN, N., 1980. *Language of the Streets and Other Essays*. Manila: National Bookstore.
- KERKVLIT, B., 1977. *The Huk Rebellion: A Study of Peasant Revolt in the Philippines*. Berkeley, Cal.: University of California Press.
- KOLB, A., 1940. Die reislandschaft auf den Philippinen. *Petermanns Geographische Mitteilungen*, vol. 86, pp. 113-124.
- LACHICA, E., 1984. *Ayala, the Philippines' Oldest Business House*. Makati: Filipinas Heritage Foundation.
- LAGMAY, M.S., 1965. Juan Araneta (1852-1924). In: H.K. VILLARROEL et al., ed., *Eminent Filipinos*. Manila: [Philippine Textbook Publishers], pp. 37-38.
- LARKIN, J.A., 1972. *The Pampangans: Colonial Society in a Philippine Province*. Berkeley: University of California Press.

LARKIN, J.A., 1993. *Sugar and the Origins of Modern Philippine Society*. Berkeley: University of California Press.

LARRABEITI, R., 1948 / 2003. Coordonnées des Basques résidant dans le district de Bicolandia, dans l'île de Luzon, de Panay, de Mindanao, de Negros (provinces de Negros occidental et de Negros oriental) et de Cebu. In : *VIIème Congrès d'Etudes Basques (7. 1948. Biarritz)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2003, pp. 539-545.

LARRONDE, J.C., 1998. *Manuel de Ynchausti (1900–1961). Etorri handiko mezenas bat / Un mecenas inspirado*. Villefranche: Bidasoa, Institut d'histoire contemporaine. Frantsesez argitaratuta *Bulletin du Musée Basque*, 1993, vol. 136, pp. 117-170.

LEGARDA, B.J., Jr., 1999. *After the Galleons: Foreign Trade, Economic Change, and Entrepreneurship in the Nineteenth Century Philippines*. Quezon City: Ateneo de Manila University Press.

Life and career of Don Manuel Elizalde. Manila, 1968

LONEY, N., 1964. *A Britisher in the Philippines or the Letters of Nicholas Loney*. Manila: National Library.

LÓPEZ-GONZAGA, V., 1989. *The Socio-Politics of Sugar: Wealth, Power Formation and Change in Negros (1899-1985)*. Bacolod: La Salle Social Research Center.

LÓPEZ-GONZAGA, V., 1991. *The Negrense: A Social History of an Elite Class*. Bacolod: La Salle Institute for Social Research and Development.

LÓPEZ-GONZAGA, V., 1994. *Land of Hope, Land of Want: A Socio-economic History of Negros, 1571–1985*. Quezon City: Philippine National Historical Society.

MANGELSDORF, A.J., 1930. Cane Varieties in the Philippines. *Hawaiian Planters' Record*, vol. 34, no 4, pp. 403-407.

MANUEL, E.A., MANUEL, M.A., 1986. *Dictionary of Philippine Biography. Vol. III*. Quezon City: Filipiniana Publications.

MARTÍNEZ CUESTA, A., 1980. *History of Negros*. Manila: Historical Conservation Society.

MARTÍNEZ SALAZAR, A., 1988. Presencia alavesa en América y Filipinas (1700–1826). Vitoria: Diputación Foral de Alava.

McCOY, A.W., 1982. A Queen Dies Slowly: The Rise and Decline of Iloilo City. In: A.W. McCoy eta Ed. C. DE JESUS ed., *Philippine Social History*. Hawaii: University of Hawaii, pp. 297-360.

McCOY, A.W. 2009. *An Anarchy of Families: State and Family in the Philippines*. Madison, Wis.: University of Wisconsin Press.

McLENNAN, M., 1980. *The Central Luzon Plain. Land and Society on the Island Frontier*. Quezon City: Alemar-Phoenix Publishing House.

MOJARES, R.B., 1998. *Aboitiz: Family & Firm in the Philippines*. Cebu City: Aboitiz & Company.

MOJARES, R.B., 2006. *Brains of the Nation: Pedro Paterno, T.H. Pardo de Tavera, Isabelo de los Reyes, and the Production of Modern Knowledge*. Quezon City: Ateneo de Manila University Press.

NAGANO, Y., 1988. The Oligopolistic Structure of the Philippine Sugar Industry during the Great Depression. In: B. ALBERT, A. GRAVES ed., *The World Sugar Economy in War and Depression 1914-1940*. London: Routledge, 170-181.

NELSOM, G.E., WALKER, H.S. et al., 1912. *Manual de la industria azucarera de las Islas Filipinas*. Manila: Manila Bureau of Printing.

NELLIST, G.F. ed., 1931. *Men of the Philippines. A Biographical Record of Men of Substantial Achievement in the Philippine Islands*. Manila: The Sugar News Co.

NOLASCO, C.T., 1969. *The Creoles in Spanish Philippines*. Eastern University, Master's thesis. Repr. in *Far Eastern University Journal*, 1970, Sept.–Dic., vol. 15, no. 1-2, pp. 1-201.

NUNEZ, C. et al., 1975. *The Outstanding Young Men, 1959–1974*. Manila: Philippine Jaycees by the Philippine Management Group, Inc.

OABEL, P.V., 2011. *Workers of the Mill: Local Labour Market Change and Restructuring of the Sugar Industry in Northern Negros Occidental, Philippines, 1946-2008*. The University of British Columbia, Ph.D. Diss.

OCAMPO, A., 2006. Looking Back Tanduay. *Inquirer*, 8 Sept. 2006.

PERMANYER UGARTEMENDIA, A., 2013. *La participación española en la economía del opio en Asia oriental tras el fin del Galeón*. Barcelona: Universitat Pompeu Fabra. Argitaratu gabeko doktore tesia.

QUIRINO, C., 1974. *The History of the Philippine Sugar Industry*. Manila: Kalayaan.

ROMERO, M.F.H., 1974. *Negros Occidental Between Two Foreign Powers (1888–1909)*. [Manila]: Negros Occidental Historical Commission.

RUIZ DE LUZURIAGA, E., 1950. Cane Juice Purification by the Electromagnetic Process. *Sugar News*, vol. 27, pp. 384-386.

RUIZ DE LUZURIAGA, E., 1954. Modern Distillery Practice. *Sugar News*, vol. 29, pp. 8-12.

SA-ONROY, M.P., 1990. *Negros Occidental. A Brief History*. [Bacolod].

SA-ONROY, M.P., 2003. *History of Occidental Negros*. Bacolod City: Today Printers & Publishers.

SCHULT, V., 1991. The San Jose Sugar Hacienda. *Philippine Studies*, vol. 39, no 4, pp. 458-474.

SMITH, BELL & CO., 1972. Under Four Flags. The Story of Smith, Bell & Company in the Philippines. Bristol.

SONZA, D.P., 1962. Visayan Fighters for Freedom. Santa Barbara, Iloilo: A. Sonza.

The Outstanding Leaders of the Philippines, 1980. Metro Manila: Asia Research Systems, Inc., 1980.

The Story of Aboitiz & Company, Inc. and the Men behind it. Cebu City: Aboitiz & Co., 1973.

UNSAIN, J.M., ed., 2009. Los vascos y el Pacífico. Homenaje a Andrés de Urdaneta. San Sebastián: Untzi Museoa-Museo Naval.

URIARTE, H., 1962. A Basque among the Guerrillas of Negros. Bacolod City: Editor of Civismo Week.

VARONA, F., 1938. Negros: historia anecdótica de su riqueza y sus hombres. Manila: General Printing Press. Ingelesezko itzulpena, Negros. Its History and People. Negros Occidental Historical Commission, 1965; itzultzailea, Raul L. Locsin.

WALKER, H. S., 1910. The Sugar Industry in the Island of Negros. Manila: Bureau of Printing.

WOLTERS, W.G., 1992. Sugar Production in Java and in the Philippines During the Nineteenth Century. Philippine Studies, vol. 40, no 4, pp. 411-434.

ZAIDE, G.F., 1954. The Philippine Revolution. Manila: Modern Book Company.